

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a / 730. zenbakia

Makatzena auzoko lanak esleitu dituzte, 1.880.000 euro pasatxoan

U.M.

Construcciones Balzola SA eta Guillermo Ibarгойen SAU enpresei esleitu dizkie Udalak Makatzena auzoko lanak. Aldi baterako enpresa-elkartea sortu dute biek, lanok egiteko. Oro har, auzo hura berriro urbanizatu beharko dute. 1.888.549,76 euro eta zortzi hilabeteko epea dute lanok egiteko.

Arrasateko iparraldean dago Makatzena. Ez da auzo zaharra, baina berrikuntza larregi ere ez ditu izan urteotan. Baina orain, esleitu berri dituzten lanekin, auzoa goitik behera berrikuntuko dute. Hori lortzeko, eraikin eta leku pribatuetan zein publikoetan egingo dituzte berrikuntza lanok.

JARDUERA PRIBATU ZEIN PUBLIKOAK

Hala, etxebizitza partikularrak berrikuntuko dituzte; zenbait lokal egokitu, garaje moduan erabiltzeko eta erabiltzen ez diren lokalei erabileraren bat emango die. Era berean, arkupeetako zenbait gune trasteleku moduan erabiltzeko egokituko dituzte, besteak beste.

Horrez gainera, mendiari zatia jan eta estalitako garajeak eraikiko dituzte eta orain parkea dagoen lekuaren azpiko aldean, lurpeko parkinga eraikiko dute.

ESKAILERA MEKANIKOAK

Bestalde, barruko aldetik pasatzen den errepidea konpondu egingo dute, argiteria, paretak eta auzoko eskailerak ere bai. Jarduera publikoen artean, berriz, bestelako artean, aire-



ARTXIBOA

Eskailera mekanikoak ipiniko dituzte Hondarribia eta Makatzena kaleen artean.

Hondarribia eta Makatzena kaleen artean eskailera mekanikoak ipiniko dituzte

tik doazen hariak lurperatu egingo dituzte eta Hondarribia eta Makatzena kaleen artean eskailera mekanikoak ipiniko dituzte.

HISTORIA APUR BAT

Makatzena azkeneko urteotan dabilta lanon zain; izan ere, 2001ean egin zuen ASMATU

2001eko abenduan egin zuten Makatzena auzoaren egoeraren gaineko lehen azterketa

enpresak Makatzena gaineko azterketa. 2002an, berriz, proiektua idatzi zuten. Gero, proiektu hura jendaurrean izan zuten eta zenbait alegazio aurkeztu zituzten. Alegazioak aztertu eta gero, berriro idatzi zuten proiektua. Eta hain justu ere, proiektu hori da Udalak esleitu duena.

LABUR

Gizon gazte batek iruzur egin zuen eguaztenean San Andresko bi saltokitan

Udaltzaingotik jakinarazi digutenez, eguaztenean gazte batek iruzur egin zien San Andresko dendari biri. Zerbait merkea erosi eta billete handiekin ordaindu gura zuen gazteak; baina kanbioak emateko orduan, gazteak dendariak nahastu eragin eta billetearen bat lapurtzea lortu omen zuen. Abisatu digutenez, gauza bera egiten ahalegindu zen inguruko beste saltoki batzuetan. Beraz, adi ibili.



7, 6, 5... Atzerako kontaketa hasi da!

Urria eta Maritxu Kajoi sinonimo bilakatu dira hogeitaka urteotan Arrasaten eta Euskal Herriko leku askotan. Aurtengo jaiak ere gertu dute dagoeneko. Horixe gogora ekarriko dute gaur, 18:30etik aurrera, *Maritxupei*; txikiteroen zaindariaren nobenaxue ospatuko dute eta hara doazen guztiekin. Ohiturari jarraituz, "primerako ardoa eta gazta" izango da guztiendako. /U.M.

BERRIKUNTZAK:

- PROGRAMAZIOA
Etenik gabeko programazioa (13:15 / 00:15)
- INFORMATIBOAK
Orduoro eta inor baino lehenago (laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:


- 16 MM: Film laburren saioa
- MOTZEAN: Herritarrei elkarrizketak
- DIDJERIDU: Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



OSOKO BILKURA/ Frantziskotarrekin hitzarmena

PPk ere eskatu du kultura etxeko lanak kontrolatzeko Ikerketa Batzordea sortzea

UBANE MADERA

Komentu zaharraren jabetzaren gainean frantziskotarrekin sinatutako hitzarmena aldatzea onartu egin zuen udalbatzarrak. Hori bai, oposizioak (PSE-EE eta PP) kontra bozkatu zuen eta EB abstenitu egin zen. Halaber, oposizioak berretsi egin zituen "irregularitasun" salaketak.

Kultura etxearen lanak berriro izan dira eztabaida iturri udal talde politikoen artean. Oraingo honetan, udalbatzarrak onartu egin du frantziskotarrekin sinatutako hitzarmena aldatzea; horren arabera, orain artekoa baino 700 metro koadro gehiago eskuratuko ditu Udalak kultura etxea egiteko. Horren trukean, 601.000 euro emanango dizkie frantziskotarrei erdia orain eta "beste erdia 2005eko abenduaren 30ean".

EAJren, EAren eta Aralarren aldeko botoekin onartu dute hitzarmena. Beste hiru alderdiek, berriz, erabakiarekiko desadostasuna erakutsi zuten asteleheneko osoko batzarrean. Are gehiago, PPko ordezkari Itziar Lamarainek puntu hori aprobetxatu zuen kultura etxearen lanen gaineko "irregularitasun" salaketak egiteko.

HITZARMENA DELA-ETA

Frantziskotarren hitzarmenari dagokionez, popularrak ez daude ados frantziskotarrei 601.000 euro ordaintzearekin, Itziar Lamarain esanetan, "99an sinatutako hitzarmenarekin kontraesanean sartzen delako". 99ko hitzarmenaren arabera, frantziskotarrek euren borondatez Arrasate utziko balute, ordura arte eurenak izan diren lokalak Udalarendako izango liriateke, doan. Gauzak horrela, PPk eta PSE-EEK, ez dute ondo ikusten frantziskotarrei dirurik ematea; PSE-EEren ustez, "frantziskotarrei 600.000 euro emanez gero, 600.000 euro oparitzen gabiltza eta hori herritarren dirua xahutzea da".

Horrez gainera, bi alderdiek uste dute hitzarmen berria onartuz gero, "onartu gura dutela



Oraingo honetan, Alderdi Popularrak egin ditu kultura etxeko lanen gaineko kritika gogorrak.

dagoeneko egiten dabilzan zerbait eta legekoa ez dena".

Bestalde, EB abstenitu egin zen, Ander Rodriguezek argitu zuenez, 99ko hitzarmenarekin ere ez zeuden ados, beraz, ezta oraingoarekin ere. Era berean, onartzen dute orain Udalak eskuratu gura duen komentu zatia frantziskotarren jabetzakoa dela eta horren ondorioz, erosi egin beharra dago-

ela, baina ez daude ados haiei 601.000 euro ordaintzearekin.

Entzundakoei erantzunez, Inazio Lakuntza alkateak gogora ekarri zuen 99ko hitzarmenaren onartu zutela komentua frantziskotarren jabetza zela eta orain, jabetza den neurrian, haren trukean ordaindu egin beharko da. Gogora ekarri zien, baita ere, 99ko hitzarmenaren arabera, frai-

deak Arrasatetik jotzen badira ere, Elizak bost urteko epea duela erai-kin hura berriro erabiltzeko. Hala, bakarrik bost urteak pasa eta gero eskura ditzake lokalok doan Udalak eta nahi dutena da "kultura etxearen lanak lehenbailehen has-tea berriro". Are gehiago, alkateak zera gehitu zuen: "badirudi oposizioa kultura etxerik ez izateko deseatzten dagoela".

Pobreziari aurre egiteko mozioa, aho batez

Bilkuran landutako bestelako gaien artean, nabarmentzekoa da udalbatzarrak aho batez onartu zuela Pobrezia Zero kanpainaren gainean aurkeztutako mozioa. Horren arabera, besteak beste, Pobrezia Zero kanpainaren irudi den lazo zuria ipiniko dute udaletxean; Arrasateko Pobrezia Zero Plataformak behar dituen

azpiegiturak utzi egingo dizkio Udalak, haren ekimenak diruz lagunduko ditu eta herritarren parte-hartzea bultzatuko du.

Izenak dioen moduan, Pobrezia Zero kanpainak munduko pobreziari eta desberdintasunei aurre egin nahi die, garapen iraunkorra bultzatu eta oro har, pertsona guztien eskubide guztiak defendatu.

PP-K 'IRREGULARITASUN' SALAKETAK

Horri erantzunez, PPko ordezkariak zera esan zuen: "gure interes bakarra da jakitea zertan gatatzen dabilzan zergadunen dirua. Ez da ez dugula kultura etxerik nahi, baina orain egin nahi dutena da onartu dagoeneko egiten dabilzan eta legekoa ez den zerbait (...) Obra egiten dabilzanei bidalitako gutunean Udalak onartzen du bi urtean ez dutela inolako kontrolik izan kultura etxeko lanen gainean. Lotsagarria da (...) Ni martitzenero nabil gauza bera salatzen Hirigintza Sailean". Itziar Lamarainek behin eta berriro salatu zuen udal gobernu "irregularitasunak" egiten dabilela; esaterako, "frantziskotarren komentuari dagozkion obren kasuan, inork ez du halakorik egiteko agindurik eman, eta aldiz, obrak egiten dabilza. Eta gauza bera argizuloarekin".

PSE-EEK, berriz, obra publikoaren gaineko "gardentasuna" eskatu zuen. Kultura etxearen lanen gainean, berriz, joan den astean salatutakoa berretsi zuen eta lanok kontrolatzeko Ikerketa Batzordea eskatu zuen. Bestelakoaren artean, gaineratu zuen eurek juridikoki aztertuko dutela kasua.

LASTER PROIEKTU ALDATUA

Salaketa guztien aurrean, Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi zuen obrak egiten dabilen enpresa eraikitzailearekin "jarrerak nahiko gertu" dituztela eta espero dutela 10-15 egunean bigarren proiektu aldatua ekartzera eta han azalduko dituztela argizuloaren eta obrek zer suposatuko duten. Gaineratu zuen espero duela laster "konpontzea" enpresa eraikitzailearekin izandako "tirabirak".

Ikerketa Batzordeari dagokionez, berriz, jakinarazi zuen oraindik ez dutela "baloratu" batzorde hori sortu edo ez, aholkularitza juridikoarekin aztertzen dabilzala. Lehenengo ikusi gura dute ea posible den "egoera argitzea" egingo duten auditoriarekin. Halaber, aztertuko dute ea posible den Hirigintza eta Ogasun Batzordeekin osatzea Ikerketa Batzorde hori.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

arbolapeta

arrasate

psinke

Maritxu egunean
zoragarri egon zaitezten...

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50
ARRASATE

Saiolango teilatua altxatzen hasiko dira, Musika Etxearendako


U.M.

Joan den astean moztu zituzten Saiolango teilatuko hormigoizko habeak. Ikusmina eragin zuten lanek, hormigoizko habeak kentzeko garabi handi bat ekarri zuten-eta. Orain, aurrealdea tratatzen eta teilatua zati baten altxatzen hasiko dira. Oro har, lanak bide onetik doazela esan digute.

Eta bide beretik segituz gero, otsail ingururako bukatuko dituzte lan guztiak; izan ere, proiektuan sei hilabete eta erdiko epea aurreikusitu dute guztia bukatzeko, eta uzta-laren 22an hasi ziren lanak egiten. Asmoa da Saiolan egokitzea, eta gero, goiko solairuan Musika Etxea sortzea eta behekoan, Industria Museoa. Hori guztia egiteko 400.814,90 euroko inbertsioa egingo dute. Aikia enpresa eraikitzailea dabil lanok egiten.

ORAIN, AZALA ITXURATZEN

Lehen esandako moduan, Saiolan eraikina kanpotik egokitzen hasiko dira orain: aurrealdeak konpontzen eta parekatzen eta teilatua altxatzen, hain justu. Horrez gainera, eraikinaren gela batean gordeta dagoen transformadore zaharra desmuntatu egin behar-



MONIKA MONTERO

400.814,90 euroko inbertsioa egingo dute Saiolango eraikina egokitzeko.

ko dute. Are gehiago, dagoeneko Ekonor enpresak transformadorearen hondakinak eraman egin ditu, aztertzeko. Emaitzen arabera erabakiko dute zela kudeatu hondakin horiek, kutsakorrak izan daitezkeelako.

Èra berean, Udalaren asmoa da gero transformadore hori Industria Museoa ipintzea ikusgai.

BARRUKO ZATIA, ORAINDIK EZ

Bestalde, behin eraikinaren kanpoaldea egokituta, barruko aldea egokitu beharko dute. Baina Hirigintza Saitetik jakinarazi digutenez, barruko aldea egokitzeko proiektua oraindik idatzi barik dago. Hain zuzen ere, Kudeatu enpresa arrasatearra dabil lan hori egiten.

Laster bukatuko dituzte Azoka eta Mondragonesko lanak

U.M.

Joan den egunean zabaldu zituzten Azoka eta Mondragones kaleak ibilgailuen joan-etorriarako. Horrek esan gura du gutxi falta dela lan guztiak bukatzeko; urbanizazio lanak egitea besterik ez da falta.

Hirigintza Saitetik jakinarazi digutenez, zuhaitzak landatzea, jarlekuak ipintzea eta bestelako xehetasunak egitea falta zaizkio Moyua enpresari Azoka eta Mondragones kaleetako lan guztiak bukatzeko. Bestela esanda: ezusterik ezean azaroaren amaierarako bukatuko dituzte

lan guztiak. Hain justu ere, hemendik azarora egin beharko duten lanik zailena da transformadore berri bat ipintzea.

AZOKA PLAZAN

Kontua da Azoka eta Mondragones kaleak urbanizatzear gainera, udal eraikinei argindarra eramateko transformadore bat ipiniko duela Udalak Azoka plazan. Amaia Udal Antzokirako, azokarako, Uarkaperako, kultura etxe berrirako eta inguruko argiteriarako argindarra banatuko du transformadore horrek. Orain, azoka plazako lokal bat egokitu beharko dute transformadorea han ipintzeko.



MIKEL LUPIANEZ

Joan den egunean zabaldu zituzten Azoka eta Mondragones autoen joan-etorriarako.

- Drainatze linfatikoa
- Errehabilitazioa
- Presoterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Etxez etxeko zerbitzua
- Bihurrituak

Fisioterapeutak:
Miren Malztegi
Nagore LLodio



FISIOTERAPIA
ZENTROA

Belorrieta auzoa 5
ARETXABALETA
Tel.: 943 08 21 89

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 30**
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- ZAPATUA, 1**
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- DOMEKA, 2**
Azkoaga, Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 3**
Corcuera, M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- MARTITZENA, 4**
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 5**
Amezua, Santa Marina 32..... 943 79 09 74
- EGUENA, 6**
Español, Araba etorb. 14..... 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 7**
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea..... 943 03 53 00
Iguualatorioa..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Delak..... 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA..... 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astefehenetik egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astefehenetik egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak..... 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate..... 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea..... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak..... 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza..... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron..... 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 meza nagusia
11:00 meza nagusia (euskaraz) | Domeka
10:00 (gaztelaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| 12:30 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Domeka
11:00 (elebiduna) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Isidro
Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| Domeka
12:00 (elebiduna) | |

OHARRAK

MARITXU KAJOI NOBENAIXUE
Gaur, egubakoitza, Maritxu Kajoi nobenaixue egingo dute, 18:30ean.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako emakumeek urteroko hitzordua egingo dute urriaren 22an. 13:00etan meza izango dute, eta horren ostean Musakola Hostalean bazkalduko dute. Interesatuak jo dezatela Seber Altubeko 8. zenbakira izena ematera.

1949AN JAIOTAKOAK
1970eko kintoek, hau da, 1949an jaiotakoek urteroko hitzordua dute urriaren 15ean. San Frantziskon meza entzungo dute, 12:30ean. Horren ostean, Musakola Hostalean bazkalduko dute. Izena ematerakoan, 30 euro ordaindu beharko dituzte. Horretarako, Lore lurrindegira edo Zabaleta dendara jo beharko dute.

SOTRONDIO ETA GOIKOBALU
Bihar, zapatua, Sotrongio eta Goikobalu abesbatzek kontzertua egingo dute San Frantzisko elizan, 20:00etan.

RED ALERT, 3.60 ARETOAN
Gaur, egubakoitza, Ingaltarrako Red Alert taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan, Enboskada eta Suspendersekin.

AEDrenAGENDA

AED-KO BERTSO ESKOLAK
Laster jarriko dituzte abian AEDko bertso eskolak, 2005-2006 ikasturtea hastear dago-eta. Interesa daukaten gaztetxoek jo dezatela AED elkartera.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Bultzada kultura etxearen proiektuari

Orain dela hamar urte, ospitale zaharra kultura etxe bihurtzea zen Kultura Sailaren lehentasunetariko bat. Arduradunen esanetan, "beharrezkoa da kultura etxe integral bat egitea. Talde batzuk lokal egoki barik eta beste batzuk lokal eske dabilzala-ko, arazoa konpondu behar da".



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Leuntasuna
—Arek estau leuntasun askorik ibiltzen umiekin.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 23	7 °C
MAXIMOA Eguena, 22	30 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	2,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	25 °C	7 °C	— l/m²
Eguena, 22	30 °C	7 °C	— l/m²
Egubakoitza, 23	25 °C	7 °C	1 l/m²
Zapatua, 24	28 °C	14 °C	— l/m²
Domeka, 25	20 °C	15 °C	1,2 l/m²
Astelehena, 26	25 °C	13 °C	— l/m²
Martitzena, 27	27 °C	10 °C	0,4 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7

SMSoinu Goiena eta Goazen enpresak abian jarritako egitasmoa.

Gure autobusera salto eginda hasiko dugu udazken sasoi Arrasate Irratian

Arrasate Irratian ere egutegiak agintzen du eta udako kontuei agur esateko txanda etorri da 107.7ko uhinetan. Astean eman ditu bere azkenak Uda Giroan saioak, baina udazkenarako motorra berotzen daukagu dagoeneko Arrasate Irratiko autobusa. Hortaz, astelehenean, Igo Autobusera irratsaioari ekingo diogu. Udako geldialditxoaren ostean, berrikuntze bete dugu autobusa eta horietako lehena ordutegia izango da. Aurrerantzean, 10:00etan egon beharko duzue 107.7ko gel-

tokian, gurekin uhinetan bidaiatzeko gertu. Lehen ibilbidea kilometroetako biharamuna izanik, festaren nondik norakoak izango dira saioaren ardatzak.

ASTEKO GAINBEGIRATUAN

Asteburuan, Uda Giroan saioak azken elkarrizketatuei egingo diegu tartetxoak. SMSoinu egitasmoari arreta berezia eskaini diogu asteon eta ziur batzuek ipini duzuela irrintzia telefono mugikorrean. Zertaz ari garen ez dakizula? Eran-tzuna, asteburuko hitzorduan.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratu. SMSoinu, Gotzon Arzelus; Lorategia tarte-an, atariak apaintzeko aholkuak; Leintz bertso eskola, Kepa Lizarralde
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Merkatu txikia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)


KALEINKESTA/ Domekan Kilometruetara jueteko asmorik bai? Ze asmokin juengo zara?



JAVIER IRIBECAMPOS
Langillie



UNAI MARTINEZ
Ikaslie



AITOR IZQUIERDO
Langillie



NAIARA CORCUERA
Ikaslie



NEREA GANGOITI
Ikaslie



GARAZI LARREA
Ikaslie

Bai, jueteko asmue dauket, bai. Ikastolietan lagunketako eta egun politte pasetako asmuekin juengo gare. Umiendako jolasak dauzen gunitan ibilliko gare. Kontzertuek eta holakuek...

Neu Gasteizkue naz, eta zapatu gabien etorteko asmue dauket, domekie hamen pasetako. Araba Euskaraz bai, baiñe kilometroak ez dot ezaguketan, hortan, ointxe aukerie.

Penie da, baiñe ez naz hamen egongo, Bartzelonara noie-eta. Eta penie da, holako jaixek normalien urrin toketan dielako. Oin-guen etxien eukitte, bestiotik kanpuen.

Ikastolien alde danez, eta gaiñera hamen danez, juen egin biherko dou, bai. Ze asmokin? Giro onien egune pasetan: kontzertuek ikusi, musika ona egongo da... Azken baten, ondo pasetan.

Bai, juengo gare, bai. Egi-xe esateko, ez dakit oso ondo egunien bertan ze egongo dan, baiñe zirkuituen ibilbidie ezaguketan dou, eta egunien bertan pentsauko dou nundik nora ibilli.

Bai, juengo naz. Neure ahizpa Lidek dantza egingo dau, eta ha ikustera juengo naz. Puzgarrixetan-eta jolastuko dot, eta ibilbidie egin gure dot. Ondo pasetan juengo naz.

USTEAKUSTE

Eklipsea

Astelehenean eklipsea egongo da, ilargiak eguzkia estaliko du. Bat bestearen aurrean jarri eta ez digu utziko atzekoa ikusten. Adituek diotenez, 1999tik ez da hemendik halakorik ikusi. Fenomeno bitxia da, baina antzekoak barra-barra gertatzen dira gugandik askoz gertuago.

Esaterako, astean, martitzenean, Demo eta Zuzen taldeetako lagunek epaiketa izan zuten Versallesen, euskal preso politikoen dispersioa salatzeo ekintza sinbolikoa egin zutelako. Presoen dispersioa legez kanpoko da eta dispersioa egiteak zigorra merezi du, baina horren ordez hori salatu dutenak epaitu dituzte.

Bestalde, estreinatuta berri duten *Aupa Etxebeste* filmak erakutsi digu gauzak ez direla beti ematen duten modukoak. Halakoa da argumentua, baina ez dizuet kontatuko. Arrasaten lau egunetan eman dute filma: lehenengoetan ez zen jende askorik joan, eta azkenekotan ehunka lagun kalean gelditu ziren.

Film arrakastatsu horren harira, Donostiako Zinemaldian Bergarako alkatea izan zen, filmaren estreinaldiko argazkian irteko-edo. Bitartean, bergararrak sutan daude herrian ezin dutelako filmik ikusi.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK GARAGARTZAKO JAIEN Garagartzako auzo elkarteak eskatu digu eskerrak emateko jaietako zozketan esku hartu duten guztiei. Eta, bide batez, aditzera eman digute Lourdes Molpeceres arrasatearrak irabazi duela otarra. Lourdesek eskuratu zuen 240. zenbakia. Horrez gain, Garagartza berbagai izan da irakurleen artean. Horietako batzuek deitu digute Garagartzako jaietako txaloak emateko. "Urtero moduan, ederto pasa genuen eta giroa oso ona izan zen. Jarrai dezatela horrela", azpimarratu zuten.

ASTEKODATUA

1.982

LAGUNEK IKUSI DUTE 'AUPA ETXEBESTE' AMAIAN

Egubakoitzetik astelehenera bitartean *Aupa Etxebeste* filma eman zuten Amaia Udal Antzokian. Egubakoitzean 188 lagun bakarrik joan ziren; eta zapatuan, 500 inguru. Domekan eta astelehenean, berriz, ehunka lagun kalean gelditu ziren.

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga



...SSSSZZZZ...

Isiltasuna da momentu honetan irakurleari eskatu nahi niokeena. Isiltasuna da artikulu guztian zehar topatu nahi dudana hori... Eta goizeko ordu txiki hauek isiltasunari begi-keinu egiten badiote ere, boligrafoaren zaratak apurtzen du sarrerako sintonia, minutu bakarrez ere eustirik izan ez dudana.

Isiltasuna soinu ezen dantzalekuaren espektro, non segundoez erritmoa galtzen duten, denbora tarteen kontzientzia galtzeko. Gauerdiko kanpai-hotzen hurrengoa, bakoitzaren etengabeko barne-borrokari uneak eskaintzen digun guda-lurraldea. Horregatik, hain zuzen, isiltasunak beldur gaitzake, barne-hotsek oihartzun egiteko momentua topatzen dutelako. Orduan datoz zalantzak, orduan bueltatzen dira beldurrak, zalantzak haziko dira, beldurrak gorpuztuko dira; akatsen onarpen behartuak, isiltasunaren barean atseden hartzeko.

Hizkuntza aberatsa da

isiltasunarena, eta inoiz gutxi mutua. Isiltasunari hitzak jaurtiko dizkiogu, isiltasunean isilik mantentzea ariketa zaila zaigulako. Erantzunen bila, ametsaren bila, norbere bidearen bila, eta hitz isilik nabaritutako ditugu, odolera pasatuko direnak, barruak nahastuko dizkigutenak. Urduritu gaitzake isiltasunak, zoramen tantez kutsatu arte, baina hori ez da isiltasun garbia.

Isiltasuna ulertu beharreko filosofia da, barne filosofia. Unibertsa eta pribatua. Zuria zein beltza, tarteko kolorez janzen ez denetan. Siplea eta are eta zailagoa aurkitzen eta plazerrean zein minean dastatzerik duguna.

Eta osotasunaren oinarrian aurkitu daiteke isiltasuna, guztiaren beste zati katalogatu bat, zeure balio anitzak eransteo.

Isiltasuna mitifikatzen segiko dut, (dagoeneko isilean ez bada ere) zure hitzak isilduko dizkidazun arte.

"Hizkuntza aberatsa da isiltasunarena, eta inoiz gutxi mutua. Isiltasunean isilik mantentzea ariketa zaila zaigu"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Bereziar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK
Mikel Lupianez

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



ASTELEHENEN GOIENKARIA

Uda aurretik, Lazkanok eta Uberak osatu zuten Goñiren eta Azkuneraren kontrako bikotea, Bartzelonan.

PILOTA/ Ordagoren eskutik, Kilometroen eta Maritxu Kajoiaren aldeko txapelketa

Lazkanok Goñi II.a izango du bikotekide, gaur, Uarkapen

XABIER URTZELAI

Ordago pilota enpresaren eskutik, ikusmina sortu duen pilota jaialdia antolatu dute gaur gauerako (egubakoitza). Bi norgehiagoka jokatuko dituzte, baina erakargarriena izango da Lazkano arrasatearra Mikel Goñi ezagunarekin batera ikustea (22:30ean).

Lazkanok eta Goñik, baina, ez dute kontrario makala izango, Elgetako Xabier Uberak eta Bernalek osatuko dute-eta bikote kontrarioa. Hala, uda partean horrelako lagunartekoek Katalunian, Valentzian, Salamancan eta Leonen izan duten arrakasta Arrasaten errepikatzea gura dute. Laukote horrek jokatuko duen partidua ez da jaialdiko bakarria izango. Lehenago, bost koadroen barruan lehiatuko dira Gernika eta Torre III.a pilotariak. 22:30ean hasiko dute pilota jaialdia.

dia. Sarrerak aurrez erosten dituenak 6 euro ordaindu beharko ditu; bestela, 10 euro.

FUTBOLEAN, MONDRA LESAKARA

Beti Gazte izango du oraingo asteburuan Mondrak kontrario. Lesakarrak 13.ak dira sailkapenean, lau punturekin. Etxean partidu bat irabazi (1-0 Zestoaren kontra) eta etxetik kanpo berdinketa bat erdietsi dute (1-1 Allerruren kontra).

Mondrak, berriz, emaitza izan zuen joan den astean aldeko, bai-

*Lehenengo partidua
Kilometroen aldekoa
izango da;
bigarrena, berriz,
Maritxu Kajoi saria*

na ez jokoa. Eta, Gordobilen mutilak atera begira ederto badabil-tza ere (10 gol sartuta, Preferentean orain arte gol gehien egin dituen taldea da), atzealde gehiago zaintzeko beharretan daude, eurak dira-eta aurrealdean dabil-tzan taldeen artean gol gehien jaso dituztenak (6 gol).

MUGARRI ALKESAK, DOMEKAN

Saskibaloian, Kilometroen eguna aprobetxatuko du Mugarri Alkesak Legarzia Promociones taldea hartzeko (12:00etan, Iturripen). Taularen erdialdean dauden bi taldeak (4. eta 5. postuan) gora egiteko puntuen bila kantraxaratuko dira. Joan den astean, Legarziak puntu bateko aldeagatik ez zion hirugarren postuan dagoen Tabirakori irabazi (70-69). Mugarri Alkesak, berriz, Goierriren kontra hirugarren laurdean erakutsitako gaitasuna errepikatu gura du domekan.

Denboraldia hasteko, Mungiaren bisita Garagartzan

X.U.

Arrasate Errugbi Taldekoek bihar hasiko dute denboraldia (17:00), Garagartzan, Mungia-ko taldearen kontra. Euskadiko Txapelketan lehiatuko dira arrasatearrak, talde gogorrenetakoa izateko helburuaz.

Joan den denboraldian, Arrasatek Estatu Mailako Txapelketa eustea lortu zuen, baina Gipuzkoako Txapelketan ez zituzten gutxieneko norgehiagokak jokatu, eta horregatik gal-

du dute kategoria. Joan den urtean jipoi bat baino gehiago jaso-ta, aurten zaleek joan den urtean baino gehiago gozatu ahal izango dute taldearen jokoarekin; Arrasate indartsu hasteko asmoarekin dabil.

HIRU MULTZO

Txapelketaren lehenengo txanpan, sei taldez osatutako hiru multzo egongo dira, eta lehenengo hiru sailkatuek egingo dute aurrea. Hortxe egon behar du Arrasatek, gero, sailkatuen arteko ligan daukatena eman ahal izateko.



GOIENKARIA

Arrasatekin izango dira Elorrio, Mungia, EHU, Juventud Santoña eta Arratia.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

PILOTA

Gernika vs Torre III.a.

Kilometroak Txapelketa. Gaur. 22:30. Uarkapen.

Lazkano-Goñi III.a vs Ubera-Bernal

Maritxu Kajoi Txap. Gaur. 23:00. Uarkapen.

FUTBOLA

Mondra - Beti Gazte

Preferentea. Zapatuan. 17:00. Lesakan.

Mondra - Zarautz

Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.

Mutriku - Arrasate

Kadet. Zapatuan. 11:00. Mutrikun.

Arrasate - Mutriku

Infantilak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

Urki - Mondra

Emakumezkoak. Gaur. 19:00. Eibarren.

Elgoibar - Arizmendi Arrasate

Kadete neskek. Zapatuan. 09:00. Mintxetan.

SASKIBALOA

Mugarri Alkesa - Legarzia Promociones

Domekan. Zapatua. 12:00. Iturripen.

Mugarri Alkesa - Easo B

Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

Gross - Mugarri Alkesa Arrasate

Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Donostian.

ERRUGBIA

Arrasate - Mungia

Seniorrak. Zapatuan. 17:00. Garagartzan.

ESKUBALOA

Ford Mugarri Arrasate - Ormaiztegi

Lehen Territ. Zapatuan. 18:00etan, Iturripen.

Arrasate - Aldaketa Hamasei Zarautz

Gazteak neskek. Zapatuan, 16:00etan, Iturripen.



Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

**Maritxutarako eskaintza zabala
arropa eta osagarrietan.**



MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Hainbat artistaren lanak Harresi aretoan salgai, Kilometroen alde

IKER BARANDIARAN

Gaurtik, egubakoitza, hasita urriaren 30era arte, margolan, grabatu eta eskulturez osatutako erakusketa egingo dute Harresi aretoan. Kilometroen sormena taldeak antolatu du. Gipuzkoako hainbat artistak lanak eman edo utzi dizkiete, eta horiek salduko dituzte. Batutako dirua ikastolarako da.


Kilometroen antolakuntza hainbat taldetan banatuta dago. Horietako bat sormenaz arduratzen da. Horren barruan, hainbat azpitale daude, eta horietako bat Arte Plastikoak da. Azken talde horrek erabaki zuen Gipuzkoako hainbat artistarekin erakusketa bat egitea.

Ekainean Gipuzkoako hainbat artistaren izenekin osatutako zerrenda osatu zuten, eta horiei deika hasi ziren, zuten asmoa aditzera emateko. Oporrak tartean zeudenez, irailera arte egon dira artelanak jasotzen.

HOGEI BAT LAN BATU DITUZTE

Kilometroen aldeko erakusketan esku hartzea erabaki duten artisten artean guztiak gipuzkoarrak dira. Horien artean, badira izen handia dutenak (Nestor Basterretxea, Julian Ugarte...) eta baita aspaldian ezagutzera ematen hasi diren beste batzuk ere. Besteak beste, ibarreko hainbat artistek ere eman edo utzi dituzte euren lanak.

20 lan horietatik gehienak margolanak dira, baina badago eskulturen bat eta baita olioia



ARIZMENDI

Hilabete batez egongo da erakusketa hori ikusgai Harresi aretoan.

Gipuzkoako hainbat artistaren 20 artelan batu dituzte, eta salgai daude hilabete osoan

eta eskultura uztartzen dituen lanen bat ere. Erakusgai dauden lan guztiak salgai jarri dituzte.

Batutako lan gehienak margolanak dira, baina badago eskulturarik ere

Lanen salmentatik jasotako diruaren zati bat ikastolaren dako izango da.

Bertso eskolan bi talde osatu gura dituzte ikasturte honetan

I.B.

AEDren bertso eskolan esku hartzeko izenematea zabalik dago, eta astean, horren gaineko esku-orriak banatu ditu Bertsozale elkarteak. AEDk bi talde osatu gura ditu, adinaren arabera.

AEDren bertso eskolan esku hartzeko izenematea zabalik dago; urriaren 7ra arte dago horretarako aukera. Iaz 11 eta 13 urte bitarteko taldea osatu zuten, eta AEDko bertsozale taldearen asmoa da talde hori sendotzea. Horrez gain, 8 urtetik gorako gaztetxoek beste bat sortu gura dute. Dagoeneko adin horretako lagun batzuek eman dute izena, eta arduradunak gehiagoren esperoan daude. Interesatuak AEDra joan

beharko dute (Pablo Uranga kalea) edo 943 77 12 28 telefonora dei dezakete informazio eske, inolako konpromiso barik.

Gaztetxoek izena emandakoan, guztien artean ordutegi eta egun aproposenak adostu, eta taldeak osatuko dituzte.

ESKU-ORRIAK BANATZEN DABILTA

Astean, Bertsozale elkarteak hasi da esku-orriak banatzen. Esku-orrietan azaltzen dute bailaraz bailara zer bertso eskola dauden eta horiekin harremanetan zelan jarri.

AEDko bertsozale taldeak oso positiboa deritza bertsozale elkartearen ekimen horri, "hemen ez dagoelako bertsozale ikasteko halako ohiturarik". AEDk balorazio positiboa egin du, iaztik eskolak izan duen bilakaerarengatik.

LABUR

Zapatuan, Sotondio eta Goikobalu abesbatzen kontzertua, San Frantzisko elizan

Bihar, zapatua, Asturiasko San Martin de Sotondio eta Arrasateko Goikobalu abesbatzek kontzertua egingo dute San Frantzisko elizan. 20:00etan egingo dute.

Goikobalu abesbatza oso ezaguna da Arrasaten, eta baita ere Espainiako Estatuan. Azkeneko hamarkadan ehunka emanaldi egin dituzte. Aspaldiko partez, Arrasaten abestuko dute.

San Martin de Sotondio abesbatza 1978an sortu zuten izen bereko herrian, Asturiasen. Gaur egun 28 abeslarik osatzen dute taldea, eta dagoeneko 700 emanalditik gora egin dituzte. Horrez gain, *Mine ru lu quiero madre* eta *Un pasu mas* diskoak argitaratu dituzte. 1983. urtetik hona Justo Manuel Gonzalez Antuña da zuzendaria.

Bi abesbatzek elkartrukea egin dute, aurretik Goikobaluk Sotondio herrian abestu zuen-eta.

Hika
OSAGARRIAK

Juan Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06

BOTEPRONTUEN

Nerea Lazpiur

AGENDA 21EKO TEKNIKARIA

XABIER URTZELAI

Bergararra da Nerea, eta Udaletxien egitten dau lan. Oin dala urte gutxi baten batek esan izen balutzo Bergaratik Mondraguera autopistatik etorriko zala, barre egingo euen gustora. Gaur, baiñe, ez dau barrerik egitten, holaxe hasi da-eta Mondraguera etorten.

Zetan egitten dozu lan?

Agenda 21 egitasmorako egitten dot lan. Bertan, herritarren egunerokuen, iraunkortasun ekonomikue, soziala eta ingurumena kontuen hartuko dauen plana bulzaketan dou. Agenda 21 planan barruen ekintza mordue dauz, eta horreik bete daittezen egitten dou lan.

Kotxe bako egune egin berri dou herrixen; zelan balorau dozue egun hori?

Ekintza batzuk oso positibuek izen die, baiñe egune bera... Ba egi xe esateko, ez dot pentsetan oso erantzun onik euki dauenik. Kontue da egun hori ez dala kotxie etxien ixtie bakarrik, egun bategaittik ez dou ezer konponduko. Asmue da urtien behin hausnarketa apur bat egittie, kotxiek zelako gehiegikerixak egitten doun ikusteko; eta horretarako balixo dau egun horrek.

Batzuk protestau egin euen.

Penie da protesta egitten dauen jentiek ez dauela hausnarketarik egitten, ez diela konturaketan zela-ko problemie sortu doun.

Gasolinie gerueu eta garestixau egonda be, bakotxa bere kotxien lanera: geuriek badauko konponbiderik?

Badauko, bai, baiñe ohiturak kanbixau egin biher die. Begittu, neure adibidie ipiñiko dutzut. Bergaratik Mondraguera etorteko autopistie hartu biher izeten dou, kriston zirkulaziñue egoten dala-ko. Eta, problema hori geuk sortu dou. Lanera lankide batekin batera etorten naz; eta etxera bueltaketako ez badou koinzididuten, ba autobusien jueten naz, edo beste lankideren batekin.

Ohitura batzuk aldatu egin



X.U.

“Auto bako egune ez da kotxie etxien ixtie bakarrik; hausnarketie egitteko egune da”

biherko geuke, hortan.

Bai. Geure problemen kulpie administraziñuek eukitten dau beti: errepidiek, aparkalekuek... Eta ez gare kapaz autokritika apur bat egitteko, edo konturaketako etxe bakotxien bi kotxe daukoule, edo bakarrik jueten gabela lanera.

Udaletxeko bizikleten erru-berak pintxetan dienien, zeuok konponketan dozue?

(Barre). Geuretako batzuk ibiltien die mantenimientu lanak egitten, baiñe juen zan astien pintxazo bat euki geuen, eta dendara eruen geuen. Hori beste ohitura on bat da, bizikletan ibilttie.

Zertan zabitzie momentu honetan lanien?

“Errepide txarrak, aparkalekurik ez... Baiñe ez dou autokritika apur bat egitten”

Bulegetan lan hobeto egitteko aholkuekin liburutxo bat egin dou, eta ointxe hasi gare horreik hamengo enpresa danetan banaketan: laneko argixe, energixie, ura, basurie, reziklajie...

Zeuen laneko gauza onena?

Normalien, egitten doun gauzak jentendako gustokuek diela.

Eta txarrena?

Herritarren atzetik ibilli biher doule geure idea horreik aurrera erueteko, eta askotan emaitzak ez diela gure doun besteko onak izeten.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Alguien voló sobre el nido del cuco / El perfume / Azkenaldixen Amaral eta Flito entzuten dot gustora.

NIREBIDAIAHURA/ Haritz Zubiate

Panamara / 2005eko udan.

Kune komunitatean jarraituko dugu oraingo astean, Beñatekin, Haritzekin eta Jokinekin: “Harremanak egitera joan ginen hara, hurrengo batean ere, Askapenetik inork joan gura badu, bidea errazago izateko. Hango herria ezagutu, eta gure herriaren berri ematera joan ginen. Normala den moduan ez zuten Euskal Herria ezagutzen; hori bai, Athletic ezagun egiten zitzairen. Egia esateko, oso ondo hartu gaituzte kune-tarrek”.

Arrasateko hiru lagunak Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, Panamako Kari-beko lurralde horretan, gauzak beste modu batean egiten dituzte: “Turismoa mugatuta daukate han, ez dutelako gura kanpokoan eragin txarririk. Behar duten guztia oiñanetik lortzen dute. Familia bakoitzak lursail bat du, eta berau landuz esku-ratzen dute jatekoa. Eurek esaten zuten moduan, oihana da euren hozkailua, bertara joan eta jana hartzen dutelako. Gainera, familien artean lankidetzarako ohitura daukate, eta elkarri asko laguntzen diote. Familiaren batek janaria lortzeko arazoak edo zailtasunak baldin baditu, gainontzeko familiek jartzen dituzte bitartekoak. Han ez dute goserik pasatzen; eurek dioten moduan, lan egiten duenak, jan egiten du”.

Arrasateko hiru lagunak erabat indarberrituta etorri dira han bizi izan duten esperientziari esker: “Han nola bizi diren ikusita, beste ikuspuntu batekin etorri gara. Erakutsi digute posible dela naturak ematen digunarekin bizitzea. Hemengo gizartean, baina, beste erosotasun batzuetara ohitu gara, eta inork gutxik gurako luke erosotasun horiei muzin egitea. Azken baten, luxu gehiegi ditugu berriro ere lehen-go bizimodura itzultzeko”.

XABIER URTZELAI



Victoriano Lorenzo iraultzailearen aldeko estatua.



“Hangoek esaten duten moduan, lan egiten duenak jan egiten du”

“Hemen luxu gehiegi ditugu lehengo bizimodura itzultzeko”

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



MODAYANG

Erropa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETXU.



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

Larraitz Ugarte Maidor Morras

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

ELKARRIZKETA

ANGER/MUSIKA TALDEA

“Orain, gauzak sinplifikatuta, soinu zuzenagoa eta trinkoagoa lortu dugu”

IKER BARANDIARAN

Angerrek disko berria kaleratu du, *Biluztu*. Euren kabuz kaleratu dute eta emaitza oso txukuna da, ildo propioa aurkitu duten seinale. Domekan, Kilo-metroetan, Urkuluko gunean aurkeztuko dute, 16:30ean.

Harrituta utzi nau diskoaren azalak eta diseinu txukunak.

Oso gustura geratu gara. Garbi genuen gura genuena eta Gorka Zubizarreta diseinatzaileak hori guztia islatu du. Nereak asko lagundu digu argazkietarako posatzen. Saiatu gara sinpletasuna lortzen, kargatu barik.

Biluztu... Zer da erakutsi beharrekoa?

Musika eta hitzak erakutsita biluztu gara. Hitz gehienak jendearen gainekoak dira eta guk ematen ditugun ikuspuntuak ez dira sarritan azalerazten. Bestalde, jendeari dei egiten diogu biluzteko, estetikak eta kanpo-koak baino askoz balio handiagoa duelako pertsonen barruan dugunak.

Ez zarete talde hasiberria, eta auto-ekoizpena aukeratu duzue. Zergatik? Egiten duzuenaren kontrol osoa eramateko?

Diskoa grabatuta genuen eta aukerak aztertzen hasi ginen. Garbi genuen gauzak gure modu eta erritmora egin gura ditugula. Eta erakutsi dugu gai garela gauzak modu xumean aurrera ateratzeko, eta txukun egiteko.

Copyleft-en aldeko apustua egin duzue. Zergatik? Eta azaldu zer den.

Auto-ekoizpenaren aldeko tendentzia bat dago eta *copyleft*-en aldeko apustua egiten da. Gure diskoa, musika, hitzak, ideia, irudia... modu komertzialean saltzeari uko egiten diogu. Ez dugu gura produktu edo jabetza bat izan, gure kantuak konpartitze-ko dira. Edozeinek erabil ditza-ke, baldin eta erabilera komer-



GORKA MORRAS

tziala ez bada, eta egileak zeintzuk diren aditzera ematen badute.

Ahotsa eta instrumentuak gehiago landu dituzue. Eta bigarren gitarraren hutsunea ondo estali duzue.

Gauzak sinplifikatu egin ditugu eta konturatu gara gitarra birekin baino askoz emaitza hobea atera dezakegula, lehen larregi konplikatzen ginelako. Gauza bera egin dugu beste instrumentuekin, soinu zuzenagoa eta trinkoagoa lortzeko.

Metala oinarria den arren, melodia asko sartzen duzue, eta oreka lortzen duzue.

Ez gara metalera bakarrik mugatzen. Beste musika estilo asko entzuten ditugu, eta ikasi dugu melodia hobeto erabiltzen.

Hitzak oso kritikoak dira, eta salbuespen batzuk ezik (Ertzaintza, tortura...), gaiak

“Jendeari dei egiten diogu biluzteko, estetikak baino gehiago balio du barrukoak”

ezohikoak dira, baina aldi berean gertukoak, hemengoak.

Argi genuen hitzak hemengoek hemengoendako idatzita daudela, eta autokritika handia sartu dugu. Hemen borroka edo gauzak egitea baztertuta dago parrandaren aurrean. Lehen jaia eta borroka esaten zuten, baina orain jaia da guztiaren gainetik. Bestalde, Barricadako Drogasek aspaldi esan zuen gaur egun jen-

dearen gorritasun bakarra dela sudurretik darion odola. Musika talde asko ez dira kontsekuenteak abesten dutenarekin. Salatu dugu, baita ere, batzundako ohitura dela gauzak apurtzeagatik apurtzea.

Grabazioarekin gustura gelditu zarete ala arantzaren bat sartuta daukazue?

Soinuarekin oso gustura gelditu gara. Bateriaen soinua, adibidez, itzela da! Josema teknikaria baino gehiago ekoizlea izan da, asko inplikatu da. Inakirekin ere oso ondo.

Diskoan kolaborazio bakarra dago, Anerrena. Brutal Melody oso gustuko zenuten?

Angerrendako erreferente zuzena izan da. Talde hori miresten genuen musikarengatik eta zuen jarrera xumearengatik. Eta Anerrek pozik lagundu gaitu.

LABUR

Gazte Hilabetea egingo du urrian Gazte Kontseiluak

Arrasateko Gazte Kontseilua Gazte Hilabetea antolatuz lanean hasi da. Urriaren 15etik azaroaren 6ra bitartean egingo dute, eta aste horietan kontzertuak, antzerkia, kale animazio topaketak, umendako jolasparkea, bertso ikuskizunak, bizikleta martxa eta bestelakoak egingo dituzte, besteak beste.

Gazte Kontseiluak Udalaridirulaguntza eskatu dio ekin-tza horiek guztiak egin ahal izateko, eta baita Udalaren beste hainbat gailu uztea ere.

Tokiko Gobernu Batzar-rak jardunaldi horiek egiteko 8.855 euroko dirulaguntza ematea onartu du. Horrez gain, gobernu batzarrak erabaki du azaroaren 5eko kontzerturako udal eszenatokia uztea eta baimenak lortzeko erraztasunak ematea. Horrez gain, Udalak beharrezkotzat jotzen duen ekintzetan (zirkulazioa ordenatzea, material handia garraiatzea...) udaltzainen eta lantaldearen laguntza eskainiko du.

Udalak laguntza emango du Kontseiluen helburuekin bat egiten duelako.

Gaur, egubakoitza, Red Alert punk-Oi! taldea, 3.60 aretoan

Gaur, egubakoitza, kontzertu berezia egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan. Ingalaterrako Red Alert, Arrasateko Enboscada eta Suspenders taldeek joko dute.

Red Alert Ingalaterrako iparraldeko Sunderland herrian sortu zuten, 1979an. Orditik hona hainbat disko kaleratu dituzte, eta European eta AEBetan hainbat bira egin dituzte. Arrasaten, esaterako, hiru aldiz jo zuten 90eko hamarkadan, gaztetxean hain justu. Euren lehenengo emanaldian, Zakarrak taldearekin batera; bigarrenan, Iskanbilarekin; eta hirugarrenean, Iskanbila eta Des-Kontrol taldeekin. Lehenengo aldiz etorri zirenean kontzertua grabatu, eta Kataluniako Capita Swing diskoetxeak single bat kaleratu zuen. *Red Alert a Mondragon* izena dauka, eta ale guztiak saldu zituzten. Taldeak oso harrera ona jaso zuen bisita horietan, eta kideak oso txundituta gelditu ziren.

Red Alert punk-Oi! giroan oso ezaguna da, eta talde horretako kideek beste musika proiektu garrantzitsuetan ere esku hartu izan dute (*Red London, Cockney Rejects* eta *Angelic Upstarts*, beste batzuen arte).

Uarkape
jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak,
eguneko menuak, karta.

Maritxu egunerako dena prest!
Ondo pasatu!!

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE



Lilura
OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako
zure gustuko soinekoa.

Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



Mondra.net
arrasateko futbol taldea



OMU
CERAMICAS Y BAÑOS

ALMACEN Y OFICINAS:
Madrilgoa 4
Tel.: 943 79 14 26
ARRASATE

EXPOSICION:
Igorriko Eskola 4
Tel./Fax.: 943 79 07 20
ARRASATE

Biziberritu dezagun MONDRA!
egin zaitez bazkide!



Egin zaitez bazkide:

www.mondra.net

943 79 81 51

...edo ohiko lekuetan

2005-2006 denboraldiako tarifa bakarra aurreikusten da eserleku guztietarako.

grupo amuebladora
mondragonesa

- ▶ Sofaleku
- ▶ Koltxoileku
- ▶ Centro Hogar Muebles

Zigarrola, 1
Tel.: 943 77 14 92
20500 ARRASATE

Zatoz
ikustera...




Mazda
MENDIOLA
San Andres, 10 D / Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

 adox
diseinua
diploka-kartel-publikazioa-maketazioa-web orriak...
www.adoxnet.com
943 79 42 55

 anpanzar
obate
- harrobiak -

 MONDRABERRI .COM


 M
MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
CORREDOR DE SEGUROS
GARCIA & MARTÍN
ABOGADOS
C.E. Estradas Konsultoria S.L.
Erdiko kale 30 behean. ARRASATE. / 943 77 13 09

 NISSAN
MENDIOLA
San Andres, 10 D / Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

www.mondra.net

Mondragón C.F. | Atxabalpe. Garagartza, 20500 Arrasate | 123 p.k. | Tel.: 943 79 81 51 | info@mondra.net

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen termometro hori?
Arrastoa: erdiguneko oso leku bisitatu batean dago.

MIKEL LUPIAÑEZ

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Kas laranja edo limoia
2 litroko botila + 250 ml doan

1,01€ 168 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PETRA INDArendako izan da 30.euroko erosketa-txartela. Zorionak, Petra!
Galderen erantzun zuzena:
Gernikan.

ERRETRATUZAHARRA

1936ko amnistiaren dekretua

1936an, ezkerreko alderdi eta erakunde guztiek (errepublikanoek, sozialistek, komunistek, POUMek, Esquerra Katalanak, ANVk, CNTko militanteek...) Fronte Popularraren alde egin zuten. Fronte Popularraren oinarritzko helburua zen 1934ko preso politikoendako amnistia osoa eskatzea, eta lanetik botatako langile guztiak berriro lehengo lekuetara bueltatzea. Hala, hauteskundeetan, Fronte Popularra atera zen garaile Estatuan, eta horri esker, amnistiaren dekretua sinatu zuten eta, besteekin batera, Arrasateko presoak libre geratu ziren. Horixe berori erakusten du oraingo asteko argazki zaharrak, amnistiari esker libre geratu ziren presoak, pozik asko. Aretxabaletako Biteri eskolan atera zuten argazkia, 1936ko martxoan, amnistiaren ostean. Honako hauek agertzen dira, goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Ladislao del Teso, Aurelio Carmona eta Octavio Gago. Hirugarren ilaran: Damian Eguren, Saturnino Sauquillo, Pedro



Carmona, Pedro Jose Axpe eta Luzio Oteiza. Bigarren ilaran: Maximino Gil, Iturrospe, ezezaguna eta Pedro Fernandez. Eta beheko lerroan: Francisco Gutierrez, Angel Sauquillo eta Obdulio Rodriguez.

Arrasatera itzuli eta egin zuten lehenengo gauza izan zen Guardia

Zibilaren kuartelean sartu eta artxibategi guztiak erre. Era berean, 1934ko irailean dimititu zuten zinegotziak lehengo karguetara itzuli ziren berriro, Nikanor Axpe izan ezik, 36ko urtarrilean hil zen-eta. Eta lehengo zinegotziei batu zitzaizkien Nikolas Uriarte, Felipe Letona,

Eustasio Markaide eta Jesus Uranga. Gero, martxoaren 11n Nikolas Uriarte alkate izendatu zuten.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, 1936 belaunaldi etena liburua.
Urtea: 1936.

Zure ametsetakoa trajea dugu...

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.



Maritxu Kajoi
2005

Casa Cenciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak
(ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Bezeroei zerbitzua emateko estraneta
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik



Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai&by



Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a

395. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

MAIDER ETXANIZ ETA XABIER SARASUA/GAZTE TEKNIKARIA ETA KULTURA ZINEGOTZIA

“Poliki-poliki eurena den lekua sentitu behar dute gazteek eta ekintzak antolatzen ikasi”

ARETXAGAZETA

Urriaren 7an gaztelekua inauguratuko dute. 12 eta 17 urte bitarteko gazteak elkartu eta ondo pasatzeko tokia izango da. Iralabarri plazan izango du behin-behineko egoitza, erabilera askotariko eraikina egin bitartean.

Urriaren 7an gaztelekua inauguratuko duzue...

Bai, jaialdi bat egingo dugu. 17:00etan izango da, eta merienda-pasa egingo dugu: superjumping eta arku-tiroketa egongo dira eta musika jarriko dugu Iralabarri plazan. Gura duen guztia hurreratu ahal izango da gaztelekua ikustera. Gainera, Aretxabaleta 12 eta 17 urte arteko gazteei gonbidapena bidaliko diegu.

Nortzuen artean egin duzue gaztelekuaren proiektua?

Askok hartu dugu parte: Gazteria sailarekin batera, Kulturak, Euskarak, Kirolak eta Prebentzio sailak. Bakoitzak helburu bat jarri du: herri dinamikan parte hartzea; harremanak euskaraz izatea; kirola egiteko ohi-tura berreskuratzea; eta sexu harremanak, drogak eta beste hainbat gai lantzeko tokia izatea. Hilabete batzuetan landu ostean ikastetxe eta guraso elkarteei aurkeztu genien proiektua.

Zela antolatu duzue gaztelekuaren jarduna?

Hezitzaile bi egongo dira. 12-17 tartea adin tartea zaila da; sarri ez dute jakiten zer egin,



M.A.

bazterretan pipak jaten egoten dira... Hortaz, ondo pasatzeko proiektua izango da, baina era berean balio batzuk landuko ditugu: gazteen parte-hartzea bultzatzea, ekintzak edo irteerak antolatzeko orduan, esaterako. Poliki-poliki eurena den lekua sentitu behar dute, eta gauzak banatzen

eta antolatzen ikasi. Izena eta logotipoa ere ez ditu oraindik, eta eurek jarriko diote.

Zein ordutegi izango du?

Aste bukaera, jaiegun eta opor garaian egongo da zabalik 16:30etik 20:30era bitartean. Egun bereziak ere antolatuko dituzte; irteerak, esaterako.

Eta zer egongo da bertan?

Telebista bat eta prentsa, jolasak... Irteerak egin gura dituztela, ikastaroak antolatu gura dituztela: malabareak, makillajea... Ondo pasatzeko tokia izango da, baina aukera guztiekin.

Gaztelekua antolatzen den lehenengo aldia ez da.

Ez, aurreko agintaldian egin zuten ahalegin bat, baina bertan behera geratu zen. Beste zenbait lekutan ere egin dituzte ahaleginak eta beti ez zaie ondo ateratu. Hainbat faktore daude: asmatzen duzun edo ez gazteen beharrek, hezitzaileak zeintzuk diren... Gu kontu handiarekin ibili gara, eta behar bezala hasteko uda pasatu arte itxaron gura izan dugu.

Iralabarri plazan dauka egoitza, ezta?

Behin-behineko gaztelekuak bai, baina behin betikoa Santa Kurtz kalean egingo duten erabilera askotariko eraikinean egongo da. Pare bat urterako abian egotea gurako genuke, eta han sukaldea ere izango dugu.

Zergatik aukeratu duzue 12-17 adin tartea?

Gazteriaren inguruan hutsune handia zegoela konturatu ginen. Horregatik, Foru Aldundiari eskaera egin genion gure herriko gazteriaren egoeraren diagnostia egin zezala. Badakigu beste adin tartea batzuk ere badaudela, baina nonbaitetik hasi behar genuen, eta behar handien 12-17 tartea zeukala esan zigun diagnostiak; nerabezaroak, hain zuzen ere. Udalean Gazteria Saila sortu dugu, badaukagu Gazteria teknikaria, eta gazteei begira lan egiten duen arloa ere bai, eta horren guztiaren barruan gaztelekua proiektu garrantzitsua da. Lehen esandako moduan, badakigu beste adin tartea batzuk ere daudela, eta poliki-poliki egin beharreko ibilbidea izango da.



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 1
FRANLE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 2
FRANLE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Fara	943 77 18 54
Basoak	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Grete laguntzailea	943 71 18 62
Industriaidea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
XZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murrukiwo ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Oñalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pasoska Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Sasabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Airasate 943 79 14 39

IARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Lamaldiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Hasi dira parrokiako organoa konpontzen

M.A.


Irailaren 20an hasi zen Azpeitiko enpresa bat Andre Mariaren Zeruratze parrokiako organoa konpontzen. 40 egun izango dituzte lanok bukatzeko, eta Santa Zezilia egunerako gertu egongo da. Lanok iraun bitartean guztiz debekatuta dago korura igotzea.

Dagoeneko hainbat pieza eraman dituzte Azpeitiara bertan konpontzeko, haien artean teklatura. Gero, urriaren 12tik aurrera, parrokiaren bertan jardungo dute lanean langileek, eta organoaren hodiak garbituko dituzte. Bukatzeko 1925eko motorra aldatuko diote, darda-

ra handia dauka-eta. 40 egun beharko dituzte langileek lanok egiteko, eta Santa Zezilia egunerako meza nagusirako gertu izango dute.

100 URTE DITUEN ORGANOA

Hain zuzen, aurten bete ditu 100 urte parrokiako organoak. Fernand Price Frantziako organo egile, mantatzaile eta harmonia jartzaile ospetsuak egin zuen. Ez da organo handia, baina arbasoek utzitako bitxi interesgarria bai. Parrokiako kideek konpondu gura izan dute, ondorengoek ere izan dezaten organoarekin gozatzeko aukera. 13.340 euroko aurrekontua dute lanek; horietatik 8.520 euro aretxabaletarrei eskatu diete.



Lehenengo konponketa lanak Azpeitian egingo dituzte eta gero parrokiaren bertan.



Zapore goxoa utzi dute San Migel jaiek

Euskal giroa izan genuen San Migel jaietan: azoka ekologikoa, artisauek, taloak, alboka doinuak, herri kirolak eta, zela ez, Larrin dantza. Dantzari asko ez ziren hurreratu, eta entsegu falta nabaritzen zitzairen batzuei, baina giro bikaina sortu zuten Durana kalean, Ibon Koteronen dultzaina hotsek lagunduta. /M.A.

LABUR


Eskulan ikastaroak ez ditu hasiko Udalak Iralabarri plazara lekualdaketa egin arte

Urriaren hasten dira Udalak antolatzen dituen eskulan eta pintura ikastaroak, baina aurten atzeratu egin dituzte aipatutako ikastarook, lekualdaketa egin behar dutelako aurretik. Santa Kurtz kalean dagoen kultura etxea bota egin behar dute laster, eta orain arte bertako geletan lan egin duten taldeek Iralabarri plazan izango dute egoitza. Kultura etxeko teknikariek lekualdaketa egiten dutenean eta Iralabarri plazako lokalak guztiz egokitzen dituztenean ikastaroetan izena emateko deialdia kaleratuko dute.

PILATES

HASTAPENEHO TALDEAK. BAITA SAIO SEMIPRIBATUAK EDO PRIBATUA. GALDETU ORDUTEGIAK.

PEAK PILATES SISTEM SERIES SISTEMAREN BITARTEZ



Zainduz

Ilargi Plaza, 6 • Aretxabaleta
Tel.: 943 71 27 92 • zainduz@euskalnet.net



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP


*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Angelines
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea*

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01



Ilusio handiarekin hasiko du denboraldia bihar, zapatua, UDA-Mercedes Goiko areto futboleko taldeak.

Bihar hasiko du denboraldia areto futboleko taldeak

M.A.

Bihar, urriak 1, denboraldia hasiko du areto futboleko taldeak. Aurten sortu dute UDA-Mercedes Goiko taldea, eta ilusio handiarekin daude hamaika mutilak.

Urriaren leian, zapatuan, 16:30ean, jokatuko du denboraldiko lehen partidua Aretxabaletako areto futboleko taldeak. Donostiako Tribuna Norte Kirol Elkarteak izango du aurrez aurre Aretxabaletako UDA-Mercedes Goiko taldeak, eta Arrasateko Musakolan dagoen kiroldegian jokatuko dute, Aretxabaletakoa

Kilometroak jaia ospatzeko behar dutelako.

ENTRENATZAILE BARIK

Areto futboleko taldea aurten sortu da Aretxabaletan, eta Gipuzkoako ligan jokatuko du, hirugarren B mailan. Taldeko

hamaika jokalariek ez daukate entrenatzailearik, ez behintzat egunero entrenatzen dituenik, baina ilusio handiarekin ekingo diote denboraldiari. "Helburua izango da gustura aritzea eta gainerako taldeak ezagutzen joatea; izan ere, ez dakigu ezer areto futboleko denboraldiaren gainean", dio Aretxabaleta Kirol Elkarteako presidente Jokin Antxiak.

Lehenengo partidua etxean tokatu arren, Arrasaten jokatuko beharko dute; hortaz, UDA-Mercedes Goiko taldeko mutilek eskertuko dituzte Aretxabaletako jarraitzaileen berotasuna eta adorea emateko oihuak.

Aurten sortu da areto futboleko taldea eta Gipuzkoako ligan jokatuko du, hirugarren B mailan

LABUR

Aitor Alcaide eta Fran Miguel bikain dabilta Arrasateko xake txapelketan

Arrasateko xake txapelketa jokatzen dabilta Aitor Alcaide eta Fran Miguel. Irailaren 9an hasi ziren, eta egubakoitzetan jokatzen dute. Fran sailkapeneko lehenengo postuan dago Iñigo Argandoña donostiarrarekin berdinduta, eta Aitor hirugarren dago beste zenbait jokalarirekin batera. Laugarren partida jokatuko dute gaur, 19:00etan, eta partida gogorak dituzte biek: Franek, esaterako, Iñigo Argandoñaren aurka.

Joan zen zapatuan, bestalde, Urrietako txapelketa jokatuko zuten Aitorrek eta Franek, Esteban Romerorekin batera. Stewart Conquest ingelesak irabazi zuen txapelketa baina bikain ibili ziren aretxabaletarrak: Aitor laugarren geratu zen, Fran seigarren eta Esteban hamargarren.

Argazki lehiaketa antolatu du Murruxok datorren urteko egutegiaren azala egiteko

Murruxok Mendizale Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. Helburua da aukeratutako argazkiarekin Murruxok banatzen duen egutegiaren azala egitea. Orain arte Alberto Etxeberriaren argazkiak erabiltzen zituzten, baina iaz zendu zen Alberto, eta lehiaketa omenaldi txiki bat ere izango da.

Argazkiak paperean, diapositiba formatuan edo kamera digitalarekin atera eta CDan sartuta eraman ahal izango dira Murruxokora, eta bakoitzak lau baino gehiago ezingo ditu aurkeztu. Murruxokoko lokalean utz daitezke, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, edo Aretxabaletako 34. posta-kutxara bidali. Argazkiak jasoko dituzten azken eguna azaroaren 8a izango da. Irabazten duen argazkiarekin egutegia egiteaz gain, 125 euroko saria emango diote argazkilarik txapelketaren irabazleak. Aurkeztutako argazki guztiak itzuli egingo dituzte Murruxok MEko kideek.

DV Pilota Txapelketako kanporaketa jokatuko dute bihar, Kilometroen alde

Bihar, zapatua, hainbat pilota partidu jokatuko dituzte Iturrigorri frontoian. 15:30ean Gipuzkoako txapelketako kanporaketak hasiko dituzte: Uriarte eta Oion azpeitiarren aurka lehenengo, eta ondoren, Errasti anaiak elgetarren aurka. Bestalde, 18:00etan, XIV. DV Pilota Txapelketako kanporaketa jokatuko dute Kilometroak jaia-aren alde. Partida bi egongo dira: gazteen mailan, Goenaga eta Zabala, Ollola eta Aldaparen aurka, eta 23 urtez azpiko nagusien mailan, Apeztexea eta Arruti, Bixente eta Esnaolarekin norgehiagokan.

Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33

Jausqo Ostatua
Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

PARTIDUAK

FUTBOLA
UDA-Eibartarrak
2. mailako erregionala.
Zapatua. 15:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Bergara
Ohorezko liga.
Zapatua. 17:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Ilintxa
Bigarren mailako kadeteak.
Zapatua. 10:00. Ibarra.

EMAITZAK

FUTBOLA
UDA 3 Aloña Mendi 0
Preferentea.
Ordizia 2 UDA/Arizm. 0
Ohorezko gazteak.
UDA/Arizm. 3 Bergara 0
Lehen mailako gazteak.
UDA/Arizm. 2 Anaitasuna 0
Lehen mailako kadeteak.
Elgoibar 2 UDA/Arizm. 5
Ohorezko infantilak.
UDA/Arizm. 1 Lagun Onak 0
Infantil txikiak.

UDA/Arizm. 4 Urki 1
Emakumezkoen liga (F-11).
UDA/Arizm. 2 Eibar 9
Emakumezkoen liga (F-8).
UDA 1 Real Sociedad 0
Beteranoak.

PILOTA
Gipuzkoako Pilota Txapelketa
Aretxab. 22-Tolosa 17

PAGALDAI
Opari denda
Burrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Karlos
Harategia
Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

Mortin
erloju-denda
Bere bezeroen
zerbitzura
Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Dorleta
taberna
Bezeroen zerbitzura
Loramendi 8 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 94 15

ATREBENTZIAEZPADA/ Gerueu eta ume gizen gehixau dauela esaten daue; arduraketan zau?



ELI BARANDIARAN
Langillie



ANTONIO HERRUZO
Langillie



INMA MIGUEL
Langillie



MARKELIÑE MENDIETA
Langillie



LUIS VELASCO
Jubilau



MARI JOSE ALTUNA
Langillie

Ez, etxien ohitura batzuk daukou eta ondo ikesiko dauela uste dot. Galdu egin die lehengo ohiturak, ogiaz egindeko ogitartekue adibidez, eta bollerixa gehixau jaten daue oin.

Bai, elikadura zaindu egin biher da eta gure etxien daretik jaten dou. Gertatuteko jaki asko jaten da oin, bollerixa asko, eta gutxieu gertaketan da sukaldien. Ama edo aitte falta da etxien.

Bai. Lehen jangelan geldiketetan zien eta ondo emuten eutzien. Oin etxien bazkaitten daue eta ahaleginketan naz jatordu ekilibrauek egitten. Hezi egin biher dittugu ondo jateko; ez da samurre.

Bai. Nik uste dot gurasuek daukiela kulpie; goxoki gutxiau eta barazki gehixau emun biher jakue umiei, besterik ez bada pure egintde. Txikittetik erakutsi biher jakue neurrixen jaten.

Bai, eta aittejaun-aman-driok be ahaleginketan gare jatorduek zainketan. Arraiñe, barazkixek... emuten dutzou bazkaitteko, eta merixendetako ogitartekue eta jogurre.

Bai, txikitten gizona dana haundi egitterakuen be gizona izengo dalako. Astien zihher goxoki dendara ezin dala fan badakixie, baiñe bestelakuen ez dou horrenbesterako zainketan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK TXINTXAUNAK, ZEINENDAKO? Herrian kexu izaten dira gazteak, ez dutelako ez nora joan, ezta non egon ere. Antza denez, kexa berberak izango dituzte gaztetxoek ere, umeen txintxaunetan hasi dira-eta jolasean. Gaztetxoak jolasean dabilzan bitartean, umeek begira egon behar. Adin tarte bakoitzak bere beharrak ditu, eta erantzuna eman behar diegu, bestela beti txikienek ordaintzen dute. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Antonio Zuatzuari egin zioten omenaldia

Hainbat urtetan izan da ohitura San Migel jaietan omenaldia egitea herritarren bati. 2002ko irailaren 28an Antonio Zuatzuari egin zioten, urte askoan ibili zelako Olenzerori lagun egiten idiekin eta gurdiarekin. Omenaldi ostean Beinke-Loramendi dantza egiten zuten Herriko Plazan.



ASTEKODATUA

40

EGUN IZANGO DITUZTE ORGANOAK KONPONTZEKO

Parrokiako organoa konpontzen dabilta eta 40 egun izango dituzte langileek horretarako. Irailaren 20an hasi ziren; hortaz, azaro erdi ingururako bukatuta egon beharko du.

BESTEKEKESANA

“Doktrinan irakatsi ziguten 10 manamendu daudela, beste gauza batzuen artean. Euretako bat maitatu egin behar dugula da. Oker genbiltzan orduan ere, pertsona duina izateko oinarriak galduta. Baina, oja! Hau ez da erlijioaren kontu eskusiboa. Adibide hau lanera, koadrilara, politikara... eraman dezakegu inongo erreparu barik. Erakutsi digute zein balore den ona eta zein txarra, zer sentitu beharko genukeen miserable ez izateko, munstro ez sentitzeko. Ba ez. Sentitzen dena sentitzen da, horrek ez dauka bueltarik. Gainontzeko poz eta pena adierazpenak beldurrez egindakoak edota zeresangodutenaren opari antzuek dira, hutsak. Ez dugu plastikozko lorarik merezi, ez jasotzeko eta ezta erregalatzeko ere.

ANDONI MUXIKA
Argia/05-09-25

HERRITARRENBERBAK/ Arrate Arkauz



Igandean etxean dugu Kilometroak

Pasa dira 6 urte, “kilometroak ala kilolitroak” izenburupean, ARETXAGAZETAn, iritzi artikulua idatzi nuela. Orduan, urruti izan ziren arren, erreflexio bat egiteko motiboa behintzat eman zidan. Oreretakoa “bizi kmk-99” izan zen eta azkenean, kilozaparrada eta kilomozkorretan laburtu nuen han ikusitakoa.

Etara! konturatu orduko, gurera ere etorri da! Gainean dugu! Baina... Laster pasako da. Atzean geldituko dira, urtean zehar egingo bilerak, ardurak, kontaktuak, lanak, jaialdiak... eta beste milaka eta milaka buruhauste. Errosarix biharamuna, beste egun bat gehiago izango da batzuentzat eta lasaitasunerako unea besteentzat. Horrela konturatzen da bat, horrelako jaialdi batekin gozatzeko aukera, etxe ondoan ere badugula, urrutira joan gabe. Orain arte, urrutikoetara joan bagara, orain bertan dugunean, etxean gelditu behar al gara?

Dena dela, gezurra badirudi ere, 1999an iritzi artikulua idatzi

nuenean, ez nekien zer nolako jende pila ibili behar izaten den, guzti horren atzean. Gehienak, borandatez, ilusioaren truke, ikastolei, euskarari, edo guztiari batera, bultzadatxo bat eman nahian.

Pasa den igandean egin nuen ibilbidea korrikan eta agian, ez dago ondo bertako batek esatea, baina... zein ibilbide polita eta erraza! Ez du egingo, baina egiten badu ere, euritan egiteko modukoa, lokatarik gabekoa. Ikazkinaren txondorra eta belar meta ere ikusgai zeuden jadanik... Aurrera nindoan korrikan, baina pentsamenduek, atzera begiratu eta ibilbide hori posible egiteko behar diren baserritarren eta beste hainbaten baimenaz akordatu nintzen. Beraien borondate onaz. Batzuk errazago eta beste batzuk dudatan, baina denak atek zabalik. Txalotzekoa, benetan.

Ea ba egun politaz gozatzeko aukera izaten dugun guztiok eta oroitzapen on bat gelditzen zaigun betiko. *Ifini bizirik, atara Plazara!*

“Orain arte urrutikoetara joan bagara, orain bertan dugunean, etxean gelditu behar al gara?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAN
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a / 224. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Zeramika bilduma erosi eta Zubiate labea berrituko dute

M.A.

Udalak erabaki du antzinako zeramika bilduma bat erostea, eta Zubiateko labea berreskuratu ondoren, labearen ondoan zeramikaren gaineko areto bat jartzea. Bilduma 60.000 eurotan erosi dute, eta 2007aren hasierarako aretoa bukatu gura dute.

Orain dela urtebete inguru hasi ziren harremanetan Udala eta Bergarako Victoriano Larrañaga bildumagilea. Bergarako horrek 240 piezaz osatutako zeramika sorta dauka, eta Udalak kontsultatutako adituen esanetan, "pieza horiek Euskal Herriko etxeetako zeramika tradizionalaren erakusle argiak dira".

Udalak eta Victoriano Larrañaga bildumagileak berehala egingo dute tratua. Udalak 60.000 eurotan erosi dio bilduma osoa, eta laster ekarriko dute herrira. Eta pieza guztiak katalogatutakoan, herritarrei erakutsiko dizkiete.

Bilduma horretan mota askotako piezak daude: potinak (botijoak), bazinak (barreñoak), koiarendako ontziak, pitxerrak, platerak, katiluak, pixontziak, eltzeak, lapikoak eta beste asko.

ZUBIATE LABEA BERRESKURATU

Udalaren asmoa da Gaztañadui kalean dagoen Zubiate labea berreskuratu eta han areto bat prestatzea, zeramika guztiak bertan batzeko. "Ez dadila bakarrik



Argazkietan, erosi duten bildumako pieza bat; eta Gaztañadui kalean dagoen Zubiate labea.

Bergarako bildumagile batena da 240 piezaz osatutako zeramika bilduma

labea ikusgai egon; labe horretan zer egiten zuten ikusteko aukera egon dadila", azaldu zigun Juan Carlos Bengoa alkateak. Horrez

Bilduma 60.000 eurotan erosi dute, eta euskal zeramika tradizionalaren erakusle da

gain, alkateak argitu zigun labeak daukan garrantzia: "200 urte ditu, ez gehiago, baina Jaurlearitzak kultura interes handia zue-

Zeramika bilduma Zubiate labearen ondoan, Gaztañadui kalean, areto baten jarriko dute

la esan zuen, eta Gipuzkoan ez dago halako beste laberik". 2007aren hasierarako aretoa bukatuta egotea gura dute.

LABUR

Bihar, zapatua, euskararen aldeko jaia egingo dute

Zapatuan *Ifini dantzan miñe, euskara plazara!* euskararen aldeko jaia egingo dute. Amus-kak, gazte batzarrak eta Aitzorrotx elkarteak antolatu dute. Kilometroak jaiaren bezpera herrian girotzeko eta euskararen alde egiteko.

Plazako karpan garagardo jaia izango da. Arratsaldean, bertsolariak eta trikitilariak izango dira, eta afari-merienda eta capoeira erakustaldia. Bukatzeko, Shaggy Daddy & The Troublemakers taldearen kontzertua, gaztetean.

Eguenean hasiko dituzte Guraso Eskolak


Eguenean, urriaren 3an, hasiko dituzte Guraso Eskolak. Kultura etxean egingo dituzte, ordu eta erdiko saioetan, eta eguenero batuko dira. Udalak antolatuta, DBHko gurasoei zuzenduta daude.

Izena emateko epea luzatu egin dute, eta interesatuek astelehena, urriaren 3a, izango dute azkeneko eguna.

HEZI institutuko Edurne Galindez izango da eskolaren arduraduna, eta matrikula 10 euro da. Honako gaiak landuko dituzte datozen eguenean: *Nerabea ulertzea; Harremanak nerabeekin; Nerabea, umea edo heldua?*; eta *Bitartekaritza, hurrenez hurren.*

IBARRAUNDI MUSEOAREN HITZALDIAK

Gure aztarnen bila



HIZLARIA: Álvaro Arrizabalaga, Lezetxikiko indusketen zuzendaria.

GAIA: Euskal Herriko historiaurrea: Lezetxiki.

TOKIA: Ibarraundiko hitzaldi aretoan, Eskoriatza

NOIZ: Urriak 6. Arratsaldeko 19:00tan.

TELEFONO ZKIA: 943 715 453



TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

UDALTAINGOAREN OHARRAK, KILOMETROAK EGUNERAKO

Udaltzaingoa herritarrei hainbat aholku eman dizkie domekarako, Kilometroak egunerako. Lehenik eta behin, eskatu die jai-gunera oinez joateko edo bestela, geltoki zaharrea autobusak hartzeko (joan eta etorria, 2 eurotan). Horrez gain, eskatu die herritarrei autoa ahalik eta gutxien erabiltzeko eta garajea duenak erabiltzeko, kanpotik auto asko ekarriko dituztela uste dutelako. Horrez gain, Eskoriatzara sartu gura dutenei eskatu die Intxaurtxuetako sarrera erabil dezatela.

ARETO FUTBOL ETA SASKIBALOI PARTIDUAK

Bihar, zapatua, ohorezko ligako areto futbol taldeak SD La Parrillaren kontra jokatu du, 16:00etan, kiroldegian. Horren ostean, 18:00etan, 2. maila nazionaloko saskibaloi taldearen hitzordua izango da. Hark Bera-bera Gros taldearen kontra jokatu du.

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Dorletako proiektuari egindako alegazioak berbegai izan zituzten

I.B.

Atzo, eguna, Dorleta auzoa eraberritzeko proiektua eta auzotarrek proiektuari aurkeztu dizkioten alegazioak berbegai izan zituzten Udaleko osoko bilkuran. Udalak atarrietan arrapalak jarri gura ditu, baina hainbat auzotar kontra agertu ziren.


2005eko ekainean, Udaleko osoko bilkurak lehenengo onarpena egin zion Dorleta auzoa eraberritzeko proiektuari. Injelan SL enpresak idatzi zuen proiektua. Eta hura onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aditzera eman zuten, eta erakusketak publikoak egin zuten herritarrek eraberritzeko plana bere horretan ikus zezaten.

Dagoeneko, erakusketak ikusi eta informazioa aztertu ondoren, hainbat bizilagunek alegazioak aurkeztu dituzte. Udaleko taldeak alegazioak aztertzen ibili dira eta atzo, eguna, osoko bilkuran hartuko zuten azken erabakia.

ARRAPALEKIN BUELATA

Hainbat alegazio jaso dituzte eta horietako asko etxeetara sartu edo irteteko arrapalekin lotuta daude. Ailegaerraztasuna bermatzeko asmoz, Udalak erabaki du sarreran eskailerak dituzten etxeetan arrapalak jartzea. Baina zenbait bizilagun ez daude ados, eta kontra agertu dira.

Horrez gain, Udalak asmoa zuen etxeen arteko bidexkak



Dorleta auzoko hainbat etxek ez dituzte ailegaerraztasun neurriak betetzen.

Udalak eta Dorletako auzotarrek hainbat hobekuntza egin dizkiote idatzitako proiektuari

zabaltzeko, baina hainbat auzotarrek aditzera eman dute gura dutela bidexka estuak izatea eta berdegunerik ez ukitzea. Are gehiago, hainbat bizilagunek eskatu dute berdeguneak bere horretan uzteko, edota horiek gehitzeko. Horrez gain, hainbat auzotarrek aditzera eman dute

aparkalekuak gutxitzerik ez dutela gura, eta zenbaitzuek eskatu dute HUHEZIKO aparkalekua publikoak izan dadila.

UDALAREN PROPOSAMENAK

Udal taldeak hainbat proposamen egin zizkion proiektuari, osoko bilkuran aztertzeko asmoa zituztenak: eskailerak kendu eta atarrietan arrapalak jartzea; oinezkaren arrapala handitzea; oinezkoek lehentasuna dutela azpimarratzeko garajeen parean lurzoru mota aldatzea; Irakasle Eskolako eraikin zaharrari saneamendua konpontzea, eta beste batzuk. Honako hau idazteko orduan, ez dakite zein alegazio hartu zituzten kontuan.

Mutilak behar dituzte euskal dantzen taldea osatzeko

I.B.

Musika Eskolan hainbat ikastaro ematen dabilta. Horiez gain, honako ikasturte hau euskal dantzak erakusten dituzten hirugarrena da. Urteik urtera gero eta ikasle kopuru handiagoak ematen du izena, baina mutilen hutsunea dute. Hala eman digute adi-

tzera Musika Eskolako ardura-dunek.

Horrekin lotuta, aurten, heldu talde batek erabaki du euskal dantzak ikasi eta talde bat osatzea. Gutxieneko taldea sortzeko 8-10 lagunek izena ematea behar dute, eta hortaz, lagun gehiagoren premian daude. Interesatuak jo dezatela Musika Eskolara.



Udalak 210 erretiratu omendu zituen

Domekan, 210 erretiratu batu ziren Udalak antolatutako bazkari erraldoian. Emakumezko eta gizonezko zaharrenei, Rosalia Blancori eta Antonio Izagirreri hurrenez hurren, aipamen berezia egin zieten. Biek hala biek 96 urte dituzte. /A.L.

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel.: 943 71 47 36
Eskoriatza

LABUR

Eskulan ikastaroa egingo dute, Amuskaren eskutik

Urtero moduan, Amuska emakumeen elkarteak eskulan ikastaroa antolatu du datozen hila-beteotarako. Besteak beste, larrua lantzen, ehoziria egiten eta beste irakatsiko dizkiete.

Ikastaroa astelehenean, urriaren 3an, hasiko dute, eta kultura etxean egingo dute, 18:00etatik 19:00etara bitartean. Elkarteko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 26 euro. Interesatuak jo lehenbailehen izena ematera, ixtear dago-eta.

Urrian hainbat ikastaro egingo dituzte KZgunean

KZgunea gogor dabil herritarrei ikastaroak ematen. Urri-rako ere hainbat eskaintza prestatu dituzte. Hilaren 7an, enplegua lortzeko azalpenak emango dituzte, 16:00etatik 18:00etara. Hilaren 14an, *Euskara ziberespazioan* gaia landuko dute, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Hilaren 21ean, berriz, *Zure egunkaria irakurri* gaia landuko dute, 18:00etatik 19:00etara bitartean; eta 28an, *Konsumitzailea sarean* izango dute berbegai, 18:00etatik 20:00etara. Urriko eskaintza hori guztia euskaraz emango dutela iragarri dute.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko irailaren 30a / 165. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Zabola-Untzillako errepide-zatia konpontzeko lehen pausoa

UBANE MADERA

Hirigintza gaiak nagusi izan dira oraingo hilabeteari dagokion bilkuran. Tartean, Untzilla eta Zabola auzoen arteko errepide zatia konpontzeko lanak esleitzeko plegua aztertu zuten. Ez dugu hartutako erabakien berri, albistea idaztean, batzarrak bukatu barik zen-eta.

Batek baino gehiago gustura hartuko du jakitea Untzilla eta Zabola arteko errepide zatia konpontzen laster hasiko direla. Laster hasiko dira ezen eguazteneko batzarrean lan horiek esleitzeko baldintzen plegua aztertu baitzuten; eta ezustekorik ezean, plegua onartu eta obra horiek esleitzeko deia egingo du laster Udalak. Hain zuzen ere, iragarkia Arabako Buletinean argitaratu eta 26 eguneko epea dute enpresen proposamenak aurkezteko; Udalak larrialdiko prozeduraz tramitatu nahi du-eta gai hori.

Asko jota 87.250,56 euroko aurrekontua izango dute lanek. Diputazioak onartu du behin-behinerako 42.350,34 euroko laguntza ematea, betiere, behin betiko aurrekontuak zehaztuko du Diputazioak emango duen laguntzaren kopuru definitiboan.

EGUZKIERRIPAKO GASIFIKAZIOA

Horrekin batera, Eguzkierripa auzoa ere berbera izan zuten osoko bilkuran. Kasu horretan, Eguzkierripako gasifikazio proiektua onartzea proposatu zioten udalbatzarrari, eta ahalmena ematea Mertxe Mondragon alkateari Repsol enpresarekin gai horren gaineko hitzarmena sinatzeko.

Obra horien harira, jakinarazi digute Udalaren asmoa dela lehenbailehen hastea lanean.

Eta Hirigintza Saileko kontuekin amaitzeko, Aramaion zenbait obra egiteko Plan Foralari dirulaguntza eskatzea ere aztertzekotan ziren zinegotziak.

ZERGA BERRI BAT: PLUSBALIOA

Horrez gainera, bestelakoen artean, ekonomia kontuekin ere aztertu zituzten zinegotziek. Hain justu ere, araudi berri bat onartu dute, behin betirako. Plusbalioarekin edo gainbalioarekin lotutako araudia da, norberaren jabetzari ezartzen zaion plusbalioaren



87.000 euro inbertituko dute Zabola eta Untzillaren arteko bidea konpontzen.

Plusbalioa leku guztietan kobratzen dute gaur egun, Aramaioko Udalean izan ezik

gainekoa, hain zuzen ere: "Lur horren jabetza edozein tituluz eskualdatzen bada edo horien gainean jabetza mugatzen duen edozein gozate-eskubide erreal eratzten edo eskualdatzen bada" kobratuko dute zerga hori. Kontua da plusbalioa leku guztietan kobratzen dutela gaur egun, Aramaioko Udalean izan ezik. Eta orain, erabaki dute Aramaion ere zerga hori kobratzen hastea. Hala, eguazteneko batzarrean proposatu zuten behin betiko onartzea araudi hori. Hain zuzen ere, jakinarazi digute behin-behinekiko onspena eman eta gero, legeak ezarritako bidea jarraitu eta jendaurrean izan dutela araudi hori, alegaziorik balego haiek hartzeko. Orain, alegaziorik izan ez denez, eta ezustekorik ezean,

Burokrazia arazoen eraginda, oraindik ez dute kobratu Ondasun Higiezinaren Gaineko zerga

behin betiko onartu dute araudi hori osoko bilkuran.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Bestalde, ekonomia kontuekin jarraituz, Ondasun Higiezinaren Gaineko zerga ere berbera izan zuten batzarrean. Kontua da burokrasia arazoen eraginda, Udalak oraindik ez duela kobratu Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga. Hain justu ere, eguazteneko batzarrean jakinarazi zuten data zehaztu barik dagoen arren, urtea bukatu baino lehen kobratuko dutela zerga hori.

Edozelan ere, eta lehen esandako moduan, albiste hau idaztean oraindik batzarra egin barik zegoen, beraz ez dugu jakiterik zein erabaki hartu dituzten zinegotziek.

HERRITARREN HITZA / Kepa Lizarralde Zalgo • Langilea

¡¡A la puta calle!!

Lenengo eta behin, barkatu idatzi hau hain modu zatarrien hastiegatik, erderaz. Harire: setienbrie be juen da, bakaziñuetako bizimodu diferentia (askoz hobia) atzien itxi eta normalidadera bueltetako hilebetie: langilliek fabrika eta ofiziñetara, futbolistak disgusto eta pozak emutera, politikuek diskusiñuetara... eta irakasliek, umiek eta gaztiekin eskolara.

Eta normalidadera buelta honetan, lan egonkorra galdu euen irakasliek be ekin die barriro, politto-politto, zatitue ataraten. Urte hasieran ekin zien protestan lanetik kalera bota biher zittuela esanaz Euskerien examina aprobau ez euelako. Bañe hori baño askoz be sakonau da asuntue: Euskeraz ez ekixen irakasle horreik 1998xen jakin euen euskeraz ikesi eta 1. Hizkuntza Eskakizuna titulue atara bihera eukiela (bañe ez pentsau, titulu hori atarateko nehikue da lau berba jakittie).

Pentsaizue, 6-7 urte lau berba ikesteko. Hori gutxi ez eta bi urteko liberaziñue hartu euen askok (bi urte lana ein barik eta iguel-iguel kobraute). Atara kontuek, 2 urte, lan egun bakotzeko 8 ordu lau berba horreik ikesteko eta hala ta be ezebez, ezta berba erdi be

euskeraz! Bañe kontue ez da hori bakarrik, zorionez askok eta askok bai lortu daue euskeraz ikestie (beraz, demostrau daue hainbeste samurtasunekin ikesi leikela), gutxiengo batzuk bakarrik izen die titulue ataratie gure izen ez dauenak eta hala ta be, kriston jaleue armau eta burruke politiko baten bihurtu daue hau asunto danau. Eta ojo!, ez daue inor kalera bota, eukien lan egonkorra galdu daue, bañe beste milleka eta milleka irakasle moduen jarraitu ahal izengo daue sustituziñuek eitten, beraz, klasiak emuten.

Irakasle honekin zer ein dezidirutie neure esku baneuko, umil-umil bañe argi eta garbi hauxe esango neuskie: zergak ordainketan dittugunoi adarra jo dusku-zuelako; Euskerien alde hainbeste lan ein dauenei eta eitten dabitzenei barre ein dutzezelako; bizkaitar,

gipuzkoar eta arabarrok ordezkatzien gaittuen Eusko Jaurlaritzan konture bizi izen zarielako; Euskerie zuen (edo zeuen manipuladorien) interes politikuetarako ebali dozuela-ko, eta batez be euskeldunoi eta Euskerie errespetue faltau izen dutzezelako, ¡¡A la puta calle!!



"Euskerie errespetue faltau izen dutzezelako"

LABUR

Sute txikia gertatu zen zapatu goizean Barajuengo Torralde inguruan

Lekukoek kontatu digutenez, zapatu goizean piztu zen sua, Torralde inguruko zela batean. Itxura denez, baserritar bat narrak garbitzen zebilen, suaren bitartez; baina halako batean, kontrolatu ezindako sua piztu zitzaion eta zelaira zabaldu zitzaion. Halakoe-tan ohi denez, berehala azaldu ziren auzotarrak sua emendatzeko laguntzera, auzoan egoten diren palekin-eta. Hala eta guztiz ere, suhiltzaileei ere deitu egin zieten. Eta ordubete-edo den-dena emendatzea lortu zuten; gero, suhiltzaileak apurtxo batean gertatu ziren, guztia bustitzen. "Zelaiaren ondoan dagoen pinudiaren ertzeraino iritsi zen sutea, baina ez zen barrura sartu, eskerrak".

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bonika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23


OHARRAK

BASERRITARRENAKO OHARRAK

Jakinarazi digutenez, Deba Garaia elkarrekin traktore-gidariak eta traktorea dutenak behar ditu, baserriko hainbat lan egiteko. Interesa dutenek Deba Garaia elkartera jo beharko dute urriaren 21a baino lehen. Bergaratik Antzuolara dagoen errepide zahararen ondoan dago Deba Garaia elkarrekin, justu errepidea mozten den lekua baino apurtxo bat lehenago. Bestalde, nekazaritza kontuekin jarraituz, gogoan izan bihar, zapatua, bukatzen dela azpiegitura lanekin lotutako dirulaguntzak eskatzeko epea. Ustiapenak hobetzeko laguntzei dagokienez, berriz, azaroaren 1era arteko epea dago eskaerak egiteko. Gertuen dagoen Eskualdeko Nekazaritza Bulegora jo beharra dago eskaerak aurkezteko.

TESTULIBURUAK EROSTEKO

Gogoan izan urriaren 14an bukatuko dela testuliburuak erosteko dirulaguntzak eskatzeko epea. HHko, LHko eta DBHko ikasleendako laguntzak dira. Diputazioan eskatu behar dira.



ZUIAKO KOADRILA

Irudiotako argazkiak irabazi zuen iazko argazki lehiaketa.

'Zuiako Koadrilari begirada bat' lehiaketa

U.M.

Hirugarren urtez antolatu du argazki lehiaketa Zuiako Koadrilak. Zuiako koadrilarekin zerikusia duten argazkiak (ingurumen naturala, soziala, artistikoa...) aurkez daitezke.

Hori bai, Zuiako Koadrila osatzen duten udalerrietan hartutako argazkiak bakarrik onartuko dituzte, alegia, Aramaion, Arrazua-Ubarrundian, Legutioan, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian egindakoak.

Interesa duten guztiek parte har dezakete lehiaketan. Baina kontuan hartu beharko dute asko jota hiru argazki aurkeztu ahal izango dituela lehiakide bakoitzak, eta gainera lehenago argitaratu bariakoak eta beste lehiaketaren batean saritu bariakoak izan beharko dute obrek.

Horrez gainera, argazki bakoitzari izenburu bat ipini beharko zaio, argazkiaren koka-

pen geografikoa azaldu beharko da eta baita zein udalerritakoa den ere.

Bestalde, aurkezten diren argazkiak pertsonaren lehen-planoak baldin badira, argazkian agertzen den pertsona horren baimen espresoa aurkeztu beharko dute argazkiarekin batera.

DOMEKAN, DANTZAK

Datari dagokionez, azaroaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira argazkiak. Hauxe da helbidea: Zuiako Koadrila, Udaletxe-ko plaza, 1-2. ezkerre; 01130, Murgia (Araba). Asteleheneetik bariakura 08.30etik 14.30ak arte eraman daitezke edo bestela ziurtatutako posta bidez bidali.

Sariei dagokienez, 400 euro gehi buztingintzako pieza emango dizkiote lehenengoari; 300 euro eta pieza, bigarrenari eta 200 euro eta pieza, hirugarrenari.

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu: 945 43 01 67 telefonora.

KZguneak antolatu du urrirako eskaintza

U.M.

KZguneko tutoreak jakinarazi digunez, hilabete berriari begira, datorren astelehenean, urriaren 3an eta urriaren 17an zabalduko du KZgunea, 16:00etatik 20:00etara. Mintegi bi ere antolatu ditu. Edozeinek parte har dezake.

Urriaren 3ari dagokionez, *Jarraitu gustuko duzun kirola* mintegia landuko du. "Internet bidez horren gustuko duzun kirol horren inguruko informazio ugari lor daiteke" eta hori egiten

erakutsiko du Aitor Madrid tutoreak asteleheneko mintegian. 16:00etatik 17:00ak artekoak izango da eta edozeinek parte har dezake. KZgunera joatearekin nahikoa da hori egiteko.

Bestalde, urriaren 17an, *Komunikatu posta elektronikoa*ren bidez mintegia egingo dute. Kasu horretan, posta helbidea zela erabili erakutsiko dute, Outlook Express programaren gaineko argibideak emango dituzte, besteak beste. 18:00etatik 20:00ak arteko ikastaroa izango da. Hemen ere interesa duen edozeinek parte har dezake.

Errekan 1.500 kilo zabor batu zituzten asteburuan

U.M.

50 bat lagun elkartu ziren joan den asteburuan erreka-garbiketa egiteko. Antolatzaileak oso pozik daude emaitza horrekin. Baina halaber, jakinarazi digute hutsunea sumatu dutela adin jakin bateko gazteen artean. Hain zuzen ere, 12 urte inguruko gazte gutxiarik parte hartu zuela esan digute.

Umeak eta gurasoak, guztiak ibili ziren erreka zaborra batzen domekan. Eta Orixol Mendi Elkartekoek kontatu digutenez, gainera, guztiak ere gustura asko ibili ziren saltsa-maltsan.

Hori bai, lana ere egin zuten; izan ere denon artean 1.500 kilo

zabor batu zituzten. Denetik batu ere: plastikoak, kaxak, txapak eta oin-zatar (etxeko ate aurreko afonbratxoak) bat ere bai, bestelakoan artean. Guztia txukun-txukun prestatu eta astelehenean eraman zuen zaborraren kamioiak.

Era berean, ondo ibiltzeaz gainera, antolatzaileek kontatu digute erreka garbi zaindu behar dela umeei erakusteko sentsibilizazio bide egokia direla halako ekimenak. Horrexegatik, hain justu ere, nabarmendu nahi izan dute parte hartze handia izan arren, bereziki, ume txikiak ibili zirela lanean; eta lehen esandako moduan, 12 urteko gazteen artean, adibidez, oso gutxi parte hartu zutela erreka garbiketan.



JUDITH ARRIOLABENGOA

Ondo asko arakatu zuten erreka, bazter guztietako zikinkeria batzeko.

Mañukorta eta 'Peña' Untzillako jaietara datoz

U.M.

Txandaka-txandaka, herriko auzoak badabilta jaiak ospatzen. Oraingo honetan, Untzillako jaiak hasi direla. Gero, 21:00etan, elkarteko bazkideek eta auzotarrek afaria egingo dute. Afaloste polita izango dute, gainera, Angel Mari Peñagarikano eta Gregorio Mañukorta bertso-lariak lagunduta. Afarira joan nahi duenak bazkide bati esan beharko dio, izena emateko.

Urriaren 7an, barikua, kanpaiek eta etxafuegoek iragarriko dute Untzillako jaiak hasi direla. Gero, 21:00etan, elkarteko bazkideek eta auzotarrek afaria egingo dute. Afaloste polita izango dute, gainera, Angel Mari Peñagarikano eta Gregorio Mañukorta bertso-lariak lagunduta. Afarira joan nahi duenak bazkide bati esan beharko dio, izena emateko.

ZAPATUAN, ANTZERKIA ETA BOLOAK

Zapatuari dagokionez, 12:00etan, meza esango dute auzoko hildakoen alde eta ondoren trikitila-

riak izango dira. 18:00etan, berriz, Tango taldeak *Brujulo esploratzailea* izeneko antzezlan egingo du. 22:30ean, dantzaldia izango da, Lotxo taldearekin eta bukatzeko, 23:00etan, Murumendiko elkarrekin antolatutako bolo txapelketa jokatzeko hasiko dira. Honako sariak prestatu dituzte: lehenengoarendako garaikurra, txapela eta 180 euro; bigarrenarendako garaikurra eta 120 euro; hirugarrenarendako 60 euro; 30 euro laugarrenarendako eta bosgarrenarendako ustegabeko oparia.

DOMEKAN, DANTZAK

Eta bukatzeko, domekan, 12:00etan, meza nagusia esango dute Santa Agedako eta Garagartzako abesbatzak lagunduta. Horren ostean, Lagun Artean taldeak dantza saioa egingo du. Eta 13:00etan, berriz, *Vermouth* dantza izango da, Iñigo Madinabertia aretxabaletarrarekin.

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 30a / 21. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

“Kamioi bakarrarekin gabiltza, eta horregatik atzeratu gara apur bat”

XABIER URTZELAI

Ur biltegiari hasi eta zelaian behera ur eta gas hodiendako kanalak eginda, aste barruan hasi dira herriaren goialdeko sarreran lanean. Sarrera hori handitzeko, eta suhiltzaileen dako ur-hargune bat jartzeko dabilta lanok egiten, baina gura baino geldoago.

AIKIA enpresako langileek azaldu digute, aste barruan egin duen eguraldi ona aprobetxatuta, inguruko obra guztietan egin gura izan dituztela aurrerapenak. Horren ondorioz, kamioi bakarrarekin ibili dira eurak lanean, eta apur bat atzeratuta dabilta: “Ez dago kamioirik, eta gainera, gaur gurekin lanean dabilena izorrratu egin da. Eskerrak hemen-dik ateratzen dugun lurra herriaren goialdera eramaten dugula, eta oraindik lekua dagoela han. Lurra beste norabait eramaten hasten garenean bizpahiru kamioi beharko ditugu, bestela...”

EGURALDIAREN MENPE

Eguraldiak okerrera egin ez badu, langileek astebururako gura zuten goiko sarrerako lana amaitzea: “Lurra kentzearena bai, behintzat. 400-500 metro kubiko lur aterako dugula aurreikusten dugu. Errepidea bost metro zabal-



Kamioia lurra deskargatzera joanda, hondeatzeko makina kamioia datorrenerako prestatzen.

duko dugu, eta zabalera horrek lau metroko luzera izango du. Hormak, berriz, hamar metroko garaiera izango du. Zabalera lau metrokoa aurreikusten dute, baina badaezpada ere bost metro kenduko ditugu. Hala, mendia eusteko uste baino horma zabalagoa jarri behar bada, arazorik ez egoteko”.

Lur hori guztia kentzeko egunean zenbat kamioi betetzen dituzten galdetzerakoan, hauxe barre artean botatako erantzuna: “Ikusi egin behar kamioia zelan dagoen kontratatuta, orduka ala bidaiaka”. Orain egiten dabilta lan amaitzearekin batera hasiko dira errepidea apurtu eta hodiak sartzen. Datorren astean

espero dute hori egitea: “Orain arte moduan, errepideko norabide bat irekita egongo da beti, Diputazioak ez liguke utziko-eta errepidea ixten. Lehenengo errepideko norabide bat zulatu eta bertan sartuko ditugu hodiak, eta hori amaitutakoan hasiko gara beste norabideko errepide zatia zulatzen”.

LABUR

Kilometroetara joateko autobusak, Eskoriatzan

Gatzagar asko gerturatuko da domekan Aretxabaletara, Kilometroak jaira. Horretarako, Eskoriatzaraino autobusean jaitsi beharko dira, eta han 15 minuturo izango dituzte autobusak. Kultura zinegotzi Jon Sasiainen esan digu, ez dutela horrelako beharrik: “Gainontzeko lekua egiteko, gatzagarrek oinez joango gara Aretxabaletaraino, ibilbideari itzulie eman, eta etxera ere oinez itzuliko gara”. Oraingoan ere, Gatzagan autobusik ez.

KZgunea zabalik, eta urriko ikastaroak gertu

KZgunea zabalik dago berriro ere, eta herritarrek astelehenean egubakoitzera erabili ahal izango dituzte bertako ordenagailuak (17:00etatik 20:00ak arte). Horrekin batera esan, urriaren 10erako eta 24rako antolatutako urriko ikastaroak. Hilaren 10ean, Adobe Acrobat Reader programa erabiltzen irakatsiko du Aitor Madridek, eta hilaren 24an, Internet erabiltzeko nola erosi irakatsiko du.

‘Zarata’ egiten hasteko ordua dela erabaki dute gatzagarrek

X.U.

Gatzagako herritarrak gaur elkartuko dira udaletxean (18:30). Garraiobide publiko-rik ez daukatela-eta protesta egiteko zein mobilizazio egingo dituzten erabakiko dute batzarrean.

Diputaziotik inongo erantzunik jaso ez dutenez, gatzagarrek aspertu dira gora begira egoteaz, eta euren arazoa konpontzeko


instituzioetatik ezer gutxi espero dutenez, dagoeneko hasi dira pentsatzen zelan egin protesta.

MOBILIZAZIOAK

Egin beharreko mobilizazioak zehazteko elkartuko dira gaur arratsaldean Gatzagako Udaleko, GURELeke, Erretiratuen taldeko, Sorginen taldeko eta Toki Eder elkarteko ordezkariak. Protesta egiteko modu asko daude, horixe esan digu Gurasoen Elkarteko presidentek: “Gatzagatik

jende asko pasatzen da, eta pankartak eta horrelakoak jartzeko horma ederra daukagu. Kontua da, ibarreko gainontzeko herrietan jendeak uste duela Gatzagan autobusak ditugula, eta urteak dira horrelako zerbitzu barik gaudela. Horregatik, erabaki dugu protesta egiten hastea, eta egubakoitzean erabakiko dugu zelan egin hori”.

Hala, mobilizazioak egiteko egutegia zehaztea da, besteak beste, gaurko batzarraren helburua.



Automobilean gora eta behera ibiltzea, Gatzagan ez daukate beste aukerarik.



*Eskerrik asko, aita, ama, aitaita, amama eta
San Migeletan gure ortuko postuan
porruak, zerbak, kipulak...
erosi zenituzten aretxabaletar guztioi.*

Kurtzebarri eskolako ikasle eta irakasleak.

Udazkeneko kanpaina

2005

Aretxarte merkatari
elkarteko dendetan
erosita, **2500€**
saritan lor ditzakezu

Zozketa eguna: azaroak 11



**Zure herriko dendetan erosi
eta sariak irabaz ditzakezu!**

Jon Diaz harategia

Katibos ume oinetakoak

Kioskoa kioskoa

L-10 ile apaindegia

Lasai masajeak

Leibar arrandegia

Leintz mertzeria

Leniz liburu denda

M^a Jesus argazkiak

M^a Karmen oinetakoak

Maritxu mertzeria

Martin bitxitegia

Nerian loradenda

Orly pub

Txilarra belar denda

Zaindus osasuna/fitnessa

Zare jantzi denda

Zubia oinetakoak

Aitzorrotx elektrizitatea

Alboka jantzi denda

Angelines fruta denda

Aretxabaleta iturgintza

Artzubi etxetresna elektrikoak

Asensio jantzi denda

Begiondo optika

Brasileña akeita etxea

Errekabarren fruta denda

Gemes edertze aretoa

Gertu janari prestatuak

Haurrak jantzi denda

Iber loteria

Imanol harategia

Iosu harategia

Iriarte mertzeria

Irudi ile apaindegia

Jauregi okindegia



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izan" gorenko kalifikazioa pertsona nagusien babeserak.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak. Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatuzeko.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

GMAC FINANCIAL SERVICES